

SOZIJETATEEN GAINEN ZERAREN ERREGELAMENDUA

I. TITULUA. ZERGA-OINARRIA

I. kapituluua. Sarrereren eta gastuen denbora egozpena

1. artikulua. Kontabilitate egozpena egitea zerga egozpenekoa ez den beste zergaldi batean.

II. kapituluua. Amortizazioak

1. sekzioa. Ibilgetu materialaren eta ondasun higiezinetakoko inbertsioen amortizazioa

2. artikulua. Ibilgetu materialaren eta ondasun higiezinetakoko inbertsioen amortizazioa. Arau komunak

3. artikulua. Taulen araberako amortizazioa

4. artikulua. Taulen araberako amortizazioa: txandak

5. artikulua. Taulen araberako amortizazioa: ondasun erabiliak

6. artikulua. Portzentaje iraunkorraren araberako amortizazioa

7. artikulua. Zenbaki digituen araberako amortizazioa

8. artikulua. Administrazioari proposatutako planaren araberako amortizazioa

2. sekzioa. Kasu berezietako amortizazioa

9. artikulua. Errebalorizatutako elementuen amortizazioa

10. artikulua. Amortizazioa bat-egiteetan, erabateko zatiketetan edo partzialetan eta ekarpenetan

III. kapituluua. Finantza errentamenduko kontratuak

11. artikulua. Finantza errentamenduko kontratuak

IV. kapituluua. Hondatzeak eragindako galerak: kreditu arriskuaren estaldura finantza entitateetan

12. artikulua. Kreditu arriskuaren estaldura finantza entitateetan

V. kapituluua. Gastu kengarrien muga

13. artikulua. Gastu kengarrien muga

VI. kapituluua. Plan bereziak

14. artikulua. Ingurumen arloko jarduketari dagozkien gastuen plana

15. artikulua. Denbora egozpeneko planak sortzapenaz beste irizpide batzuk aplikatzeko

16. artikulua. Berrinbertsiorako plan bereziak

17. artikulua. Irizpideak onesteko eta planei buruz ebazteko prozedura

VII. kapitulua. Eragiketa lotuak baloratzeko arauak eta egiaztatze prozedura

1. sekzioa. Eragiketa lotuen merkatuko balioaren ezarpena

18. artikulua. Eragiketa lotuen merkatuko balioaren ezarpena: alderagarritasun azterketa.

19. artikulua. Pertsona edo entitate lotuen artean kostuak banatzeko izenpetutako akordioetarako baldintzak

2. sekzioa. Eragiketa lotuen egiaztapena

20. artikulua. Eragiketa lotuen merkatuko balioaren egiaztapena

3. sekzioa. Ondare itzulketa

21. artikulua. Ondare itzulketa, eragiketa lotuetarako hitzartutako balioaren eta merkatuko balioaren arteko aldeek eragindakoa

VIII. kapitulua. Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak baloratzeko alde aurreko akordioak

22. artikulua. Prozeduraren hasiera

23. artikulua. Tramitazioa eta organo eskudunak

24. artikulua. Amaiera, akordioaren ondorioak eta errekurtsioak

25. artikulua. Pertsona edo entitate lotuekin egindako

eragiketak baloratzeko akordioaren aplikazioari buruzko informazioa

26. artikulua. Baloraziorako aldez aurreko akordioaren aldaketa

27. artikulua. Baloraziorako aldez aurreko akordioaren luzapena

28. artikulua. Beste zerga administrazio batzuekin eragiketa lotuen gaineko akordioa egiteko prozedura

IX. kapitulua. Eragiketa lotuei buruzko dokumentazioa

29. artikulua. Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketei buruzko dokumentazioa

30. artikulua. Zergadunaren taldeari buruzko dokumentazioa

31. artikulua. Zergadunari buruzko dokumentazioa

X. kapitulua. Dokumentazio betebeharrak, paradisu fiskaletako egoiliarrak diren pertsona edo entitateekiko eragiketetan

32. artikulua. Dokumentazio betebeharrak, paradisu fiskaletako egoiliarrak diren pertsona edo entitateekiko eragiketetan

XI. kapitulua. Aldez aurreko akordioak, zenbait aktibo ukiezinetatik sortzen diren errenten murrizketa portzentajea ezartzeko eta haiek baloratzeko

33. artikulua. Prozeduraren hasiera

34. artikulua. Organo eskuduna eta tramitazioa

35. artikulua. Aldez aurreko akordioaren amaiera eta ondorioak

36. artikulua. Aldez aurreko akordioaren aldaketa

37. artikulua. Aldez aurreko akordioaren luzapena

II. TITULUA ZENBAIT JARDUERA BULTZATZEKO PIZGARRI DIREN KENKARIAK

38. artikulua. Kenkaria, ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik

39. artikulua. Ikerketa eta garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea

40. artikulua. Kenkaria, produkzio zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatik: ikus-entzunezko lan zailaren izaera

III. TITULUA. ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK

I. kapitulua. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra

41. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren menpe dauden errentak

42. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrerak egiteko betebeharraren salbuespenak

43. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra duten subjektuak

44. artikulua. Finantza aktiboen kalifikazioa eta haien eskualdaketarako, itzulketarako eta amortizaziorako zerga betebeharrak

45. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharraren kalkulurako oinarria

46. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharraren sorrera

47. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.

48. artikulua. Atxikitzaillearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak

II. kapitulua. Konturako ordainketen kenkaria

49. artikulua. Ekonomia-jardueren gaineko zergaren tributu kuotak

IV. TITULUA. ARAUBIDE BEREZIAK

I. kapitulua. Interes ekonomikoko taldeak, Espainiakoak eta Europakoak, eta aldi baterako enpresa-elkarteak

50. artikulua. Espainiako eta Europako interes ekonomikoko taldeen eta aldi baterako enpresa-elkarteen betebeharrak

II. kapitulua. Zerga kontsolidaziorako araubidea.

51. artikulua. Zerga kontsolidaziorako araubideari atxikitako entitateak: aplikazioa eta informazio betebeharrak

III. kapitulua. Honako hauen araubide berezia: bat-egiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak eta baloreen trukaketak eta europar sozietate batek edo europar sozietate kooperatibo batek egoitza soziala Europar Batasuneko kide den estatu batetik beste batera aldatzea

52. artikulua. Araubide bereziaren jakinarazpena

53. artikulua. Jakinarazpenaren edukia

IV. kapitulua. Alderdi politikoak

54. artikulua. Alderdi politikoen ustiapen ekonomikoak, sozietateen gaineko zergatik salbuetsitakoak

55. artikulua. Frogatzea, atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharretik salbuestearen ondorioetarako, alderdi politikoek jasotzen dituzten errenta salbuetsiei dagokienez

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Xedapen gehigarri bakarra. Kanpoko lankidetzak aitorpenak aurkezteko eta kudeatzeko

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen xedapen iragankorra. Finantza eragiketa batzuen gaineko zerga-onuren araubide iragankorra

Bigarren xedapen iragankorra. Kapital higigarriaren etekinen eta ondare irabazien gaineko atxikipenen arloan egindako aldaketen araubide iragankorra.

Hirugarren xedapen iragankorra. Garraio elementuen erabilerak eragindako gastuak 2017ko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldietan

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

AZKEN XEDAPENA

I. TITULUA. ZERGA-OINARRIA

I. kapitulua. Sarreren eta gastuen denbora egozpena

1. artikulua. Kontabilitate egozpena egitea zerga egozpenekoa ez den beste zergaldi batean

1. Gastuen kontabilitate egozpena zerga egozpeneko zergaldian ez, baizik geroagoko batean egiten denean, edo, sarreren kasuan, lehenagoko zergaldi batean, zergadunak frogatu beharko du horrek ez duela eragin denbora egozpenaren gaineko arau orokorrak aplikatuz gero zegokioken tributazioa baino txikiagoa, zergari buruzko foru legearen 15.3.lehena artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

2. 1. apartatuan aipatzen den egozpena egin ondoren, eta tributazioa txikiagoa baldin bada, kasuko zergaldietako likidazioen zuzenketa egingen da, preskribatutako zergaldiak alde batera utzita, bai eta egiaztatutakoak ere, horien likidazioak irmo bilakatu diren kasuan.

II. kapitulua. Amortizazioak

1. sekzioa. Ibilgetu materialaren eta ondasun higiezinetakoa inbertsioen amortizazioa

2. artikulua. Ibilgetu materialaren eta ondasun higiezinetakoa inbertsioen amortizazioa. Arau komunak

1. Ibilgetu materialaren eta ondasun higiezinetakoa inbertsioen ondare elementuen balio-galera egiazkoa dela ulertuko da zergari buruzko foru legearen 16.2 artikuluan aurreikusitako amortizazio metodoetako bat aplikatzearen ondorioa denean.

2. Eskurapen prezioa edo produkzio kostua amortizagarria izanen da, hondar-balioa kenduta, halakorik bada.

Eraikinen kasuan, ez da amortizagarria izanen eskurapen prezioaren barruan lurzoruaren balioari dagokion zatia, zaharberritzeko kostuak kenduta, halakorik bada. Lurzoruaren balioa ezezaguna denean, hura kalkulatzeko, eskurapen prezioa hainbanatuko da lurzoruak eta eraikuntzak eskurapenaren egunean zuten katastro-balioen artean. Halere, zergadunak eskurapen prezioa banatzeko beste irizpide bat erabiltzen ahalko du, baldin eta frogatzen badu irizpide hori oinarritzen dela lurzoruak eta eraikuntzak eskurapenaren egunean zuten merkatuko balioan.

3. Ondare elementuak haien balio-bizitzaren barruan amortizatu beharko dira, funtzionamenduan hasten direnetik aurrera.

4. Ondare elementu bat berritu, handitu edo hobetzen denean eta horren zenbatekoa ibilgetu materialean edo ondasun higiezinetakoa inbertsioan sartzen denean, zenbateko hori ondare elementu horien balio-bizitza amaitu arteko zergaldietan amortizatuko da. Horretarako, zergaldi bakoitzean egotziko da berritu, handitu edo hobetzearen zenbatekoari koefiziente bat aplikatzearen emaitza; koefiziente hori kalkulatzeko, zatiketa hau egingen da: ondare elementuaren amortizazio kontabilizatua, zergaldi bakoitzean egindakoa, egiazko balio-galerarekin bat datorren heinean, zati ondare elementuak berritze, handitze edo hobetzeko lanak egin ziren zergaldi hasieran zuen kontabilitateko balioa.

Berritze, handitze edo hobetze lanen xede izan diren ondare elementuen amortizazioa lan horien aurretik aplikatzen zitzaien metodo bera erabiliz egingen da gerora

ere.

Apartatu honetan aipatzen diren lanen ondorioz aktiboari kalkulatzen zaion balio-bizitza luzatzen bada, luzapen hori kontuan hartu beharko da ondare elementuaren eta berritze, handitze edo hobetzeko lanen zenbatekoaren amortizazioaren ondorioetarako.

5. Zergari buruzko foru legearen 16.7 eta 18. artikuluetan, hurrenez hurren, arautzen diren amortizazio azkarra eta amortizaziorako askatasuna ezin izanen dira aplikatu garraio elementuei dagokienez, baldin eta zergari buruzko foru legearen 23.3 artikuluko a eta b letretan gastu kengarrietarako arautzen den mugaren menpe badaude.

3. artikulua. Taulen arabera amortizazioa

1. Zergadunak ez badu amortizaziorako beste metodorik aukeratu, amortizazioa taula honetan ezarritako gehieneko koefiziente eta aldi hauen arabera aplikatuko da:

	Urteko gehieneko koefizientea	Bi urteko gehieneko aldia
Bulego, saltoki eta/edo zerbitzu edo etxebizitzetarako eraikinak	4	38
Industriarako eraikinak	5	30
Instalazioak	15	10
Makineria	15	10
Altzariak	15	10
Informazioa prozesatzeko ekipoa	25	6
Garraioko elementuak (autobusak,	20	8

kamioiak, furgonetak, etab.)		
Barne-garraioko elementuak	15	10
Moldeak, ereduak, trokelak eta matrizeak	33	5
Lanabesak eta erremintak	Egiazko balio-galera	
Bestelako ibilgetu materiala	10	15

2. Ondare elementu baten balio-galera egiazkoa dela ulertuko da elementu horren eskurapen prezioari edo ekoizteko kostuari urteko gehieneko amortizazio linealaren koefizientea aplikatzearen emaitza gainditzen ez duenean eta, betiere, hornidura urteko gehieneko epean egin bada.

3. Ondare elementu baten kontabilitate amortizazioaren zenbatekoa 1. apartatuan ezarritako gehieneko koefizientearen aplikazioak emandakoa baino handiagoa denean, ulertuko da gastuaren kontabilitate egozpena denbora egozpena egiteko dagokion zergaldiaz beste batean egin dela.

Kasu horretan, zenbateko horren zerga egozpena geroagoko zergaldietan egin beharko da, 1. apartatuan ezarritako gehieneko epean, kontabilitateko amortizazioa gehieneko koefizientea aplikatzeak emandako zenbatekoa baino txikiagoa denean, eta zenbateko hori gehienez ere.

Kontabilizatutako amortizazio soberakinaren zerga egozpena geroagoko zergaldietan egiterik ez badago, aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, ulertu beharko da haren kontabilitate egozpena egin dela denbora egozpena egitea dagokion zergaldiaren ondorengo batean, eta, zergari buruzko foru legearen 15.3. Lehen artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitakoa aplikatzearen ondorioetarako,

ulertuko da zerga amortizazioa gehieneko alditik sortutako koefizientea aplikatzeak ematen duen zenbatekoa baino zenbateko txikiagoarekin egindako lehen zergaldiei dagokiela, zenbateko horrekin gehienez; aurreko zergaldi horietan egozten ahalko da, edo kontabilizatu zen zergaldian, artikuluko horretan xedatutakoarekin bat.

Berdin jokatuko da amortizaziorako zuzkiduren zenbatekoarekin, horien kontabilitatea amortizaziorako gehieneko epeetik kanpo egina bada.

4. Ibilgetu materialaren eta ondasun higiezinetakoinbertsioen ondare elementuen eskualdaketan lortutako errentak zerga-oinarrian sartzeko, eta inbentarioan baja gisa idazten diren kasuetan, elementu horiek zergaren ondorioetarako amortizatutzat joko dira, zergaren ondorioetarako kengarriak diren kontabilitateko zuzkiduren zenbatekoari dagokionez, bai eta aplikatzeak diren koefizientearen eta gehieneko aldiaren arabera aipatu gehieneko aldiaren zergaren ondorioetarako kengarri izan ez den zenbatekoari dagokionez ere.

Azken zenbateko hori denbora egozpena dagokion zergaldiaren ondorengo batean egotzitako gastutzat hartuko da, eta, zergari buruzko foru legearen 15.3. Lehen artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitakoa aplikatzearen ondorioetarako, ulertuko da zerga amortizazioa gehieneko alditik sortutako koefiziente lineala aplikatzeak ematen duenetik beherako zenbatekoarekin egindako lehen zergaldiei dagokiela, eta zenbateko horrekin gehienez; aurreko zergaldi horietan edo eskualdaketa egin zen zergaldian egozten ahalko da, edo inbentarioan baja ematean, artikuluko horretan xedatutakoarekin bat.

Halere, zergari buruzko foru legearen 23.3 artikuluko

a eta b letretan arautzen den gastu kengarrien muga aplikatu beharrekoa duten garraio elementuen eskualdaketan sortzen den errenta zenbatekoa den, eskualdaketaren balioaren eta haren kontabilitateko balio garbiaren arteko aldeak ezarriko du.

Azken balio hori hartuko da kontuan garraio elementu horiek inbentarioan baja gisa idazten direnean.

4. artikulua. Taulen arabeko amortizazioa. Txandak

Ondare elementu bat egunero lan txanda arrunt batean baino gehiagotan erabiltzen denean, hauen baturak osatutako koefizientearen arabera amortizatzen ahalko da:

a) Amortizaziorako gehieneko alditik sortutako amortizazio linealeko koefizientea, eta

b) Gehieneko amortizazio linealeko koefizientearen eta gehieneko amortizazio alditik sortutako koefizientearen arteko kendura bider eguneroko ohiko lanorduen kopurua zati zortzi ordu egitearen emaitza eginda ateratzen dena.

Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko eraikinetan, ez eta, haien izaera teknikoa dela eta, etengabe erabili behar diren elementuetan ere.

5. artikulua. Taulen arabeko amortizazioa: ondasun erabiliak

1. Ibilgetu materialaren ondare elementuak direnean - eraikinak eta zergari buruzko foru legearen 23.3 artikuluko a eta b letretan arautzen den gastu kengarrien muga aplikatu beharrekoa duten garraio elementuak alde batera utzita-, erabilita eskuratzen badira, zergei dagokionez kengarria den amortizazioa kalkulatzeko, gehieneko koefizientea erregelamendu honen 3.1 artikuluko taulan

ezarritakoak bider 2 egitearen emaitza dela ulertuko da.

2. 1. apartatuan aipatzen diren ondare elementuak zergari buruzko foru legearen 28.1 artikulua esanahiarekin lotuak diren pertsona edo entitateei erosten zaizkienean, amortizazioa egiteko oinarritzat hartuko da jatorrizko eskurapen prezioa edo produkzio kostua, eta erregelamendu honen 3.1 artikuluko taulan ezarritako gehieneko amortizazio koefizienteak aplikatuko dira. Gehieneko urte kopurua kalkulatzeko, eragiketa hau egin behar da: jatorrizko prezio edo kostuaren eta eskurapen balioaren arteko kendura zati prezio edo kostu horri amortizazioaren gehieneko koefizientea aplikatzearen emaitza. Taulan adierazitakoaren eta azaldutako zatiduraren arteko kendura izanen da gehieneko urte kopurua.

Eskurapen prezioa jatorrizkoa baino handiagoa denean, amortizazioa eskurapen prezio horren gainean egingen da, eta 3.1 artikuluko taulan ezarritako gehieneko koefizienteak eta aldiak aplikatuko dira.

3. Artikulu honen ondorioetarako, eskuratutako ondare elementu erabiliak funtzionamenduan aurrenekoz jartzen ez direnak direla ulertuko da.

6. artikulua. Portzentaje iraunkorraren araberako amortizazioa

1. Zergadunak aukeratzen duenean portzentaje iraunkorraren araberako amortizazio metodoa, ulertuko da balio-galera egiazkoa dela ondare elementuak amortizatzeko duen balioari portzentaje iraunkor bat aplikatzearen emaitza denean; portzentaje hori ezartzeko, zergadunak aukeratutako amortizazio linealeko koefizientearen ponderazioa egingen da (koefiziente hori gehieneko koefizientetik amortizaziorako gehieneko alditik sortzen

denera bitarte daudenetatik edozein izan daiteke, 3.1 artikuluko taulan jasotakoetatik alegia), koefiziente hauekin:

a) 1,5, ondare elementuaren amortizazio aldia bost urtetik beherakoa denean.

a) 2, ondare elementuaren amortizazio aldia bost urtekoa edo handiagoa eta 8 urtetik beherakoa denean.

a) 2,5, ondare elementuaren amortizazio aldia zortzi urtekoa edo handiagoa denean.

Aurreko letretan aurreikusitakoaren ondorioetarako, amortizazio aldia aukeratutako amortizazio linealeko koefizienteari dagokiona izanen da.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen amortizazio aldiko azken urtean ordaindu gabe dagoen zenbateko osoa amortizatuko da.

2. Erositako ondare elementu erabiliak eta eraikinak ezin izanen dira amortizatu portzentaje iraunkorraren arabera amortizazio metodoaren bidez.

7. artikulua. Zenbaki digituen arabera amortizazioa

1. Zergadunak zenbaki digituen arabera amortizazio metodoa aukeratzen duenean, balio-galera egiazkoa dela ulertuko da amortizazio kuota metodo hau aplikatuz lortzen denean:

a) Digituen batura lortuko da ondare elementua amortizatzeko urteei emandako zenbakizko balioen baturaren bidez.

Ondorio horietarako, ondare elementua amortizatzeko urte kopuruaren zenbakizko balio handiena amortizazioa hasi

behar den urteari emanen zaio, eta hurrengo urteei emanen zaie, hurrenez hurren, unitate bat txikiagoak diren zenbakizko balioak, amortizaziorako kontuan hartzen den azkenera iritsi arte, horri unitatea adinako balioa emateko.

Gehieneko alditik 3.1 artikuluan jasotako amortizazio taularen arabera gehieneko amortizazio koefiziente linealetik sortzen dena bitarte daudenetatik edozein izan daiteke amortizazio aldia.

b) Eskurapen prezioa edo produkzio kostuaren eta aurreko letran lortutako digituen baturaren arteko zatiketa egingen da, eta horrela digituen araberako kuota ezarriko da.

c) Digituaren araberako kuota bider zergaldiari dagokion zenbakizko balioa egingen da.

2. Eraikinak eta erositako ondare elementu erabiliak ezin izanen dira amortizatu zenbaki digituen bidezko amortizazio metodoaren bidez.

8. artikulua. Administrazioari proposatutako planaren araberako amortizazioa.

1. Zergari buruzko foru legearen 16.2.c) artikuluari jarraikiz, zergadunek eskatzen ahalko diote zerga Administrazioari plan berezi bat onesteko, ibilgetu materialaren eta ondasun higiezinetakoa inbertsioen ondare elementuak amortizatzeke.

Eskaera hori Zerga Administrazioan aurkeztu eta tramitatuko da, 17. artikuluan ezarritako prozedura orokorrarekin bat eta hurrengo apartatuetan zehazten diren berezitasunekin.

2. Eskabidean datu hauek adierazi behar dira:

a) Amortizaziorako plan bereziaren xede diren ondare elementuen deskribapena, adieraziz zein jarduerari dauden atxikita eta haien kokapena.

b) Proposatzen den amortizazio metodoa, sortzen dituen amortizazioen denbora banaketa adierazita.

c) Proposatutako amortizazio metodoaren justifikazioa.

d) Ondare elementuen eskurapen prezioa edo produkzio kostua.

e) Ondare elementuen amortizazioa hasteko eguna.

Eraikitzen ari diren ondare elementuen kasuan, amortizazioa hasteko aurreikusirik dagoen eguna.

3. Plan horien eskaera zergadunak eginen dio zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzuari, ukitutako elementuak funtzionamenduan hasi eta hiru hilabeteko epean.

4. Zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzuari dagokio prozedura ebaztea

5. Era berean, ibilgetu materialaren eta ondasun higiezinetakoinbertsioen ondare elementuetarako amortizazio plan berezi bat eskatzen ahalko dute araubide erkidearen araudiaren menpe egotetik Nafarroako foru araudiaren menpe egotera pasa diren entitateek, Hitzarmen Ekonomikoaren 18. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Beti ere, Nafarroako foru araudia aplikatzekoa den lehen zergaldiari dagokion aitorpena, sozietateen gaineko zergarena, aurkezteko ezarritako epea amaitu aurretik eskatu beharko da plana.

6. Onetsitako amortizazio planak ezaugarri berdinak dituzten beste ondare elementu batzuei aplikatzen ahalko zaizkie, horien amortizazioak hiru urte igaro aurretik hasi behar badu, amortizazio plana onesteko akordioa jakinarazteko egunetik aurrera, baldin eta mantentzen badira onetsitako amortizazio metodoa aukeratzea ekarri duten inguruabar fisikoak, teknologikoak, juridikoak eta ekonomikoak. Aplikazio hori Nafarroako Zerga Ogasunari jakinarazi beharko zaio ondorioak izan behar dituen zergaldia amaitu aurretik.

2. sekzioa. Kasu berezietako amortizazioa

9. artikulua. Errebalorizatutako elementuen amortizazioa

Legezko edo erregelamenduzko xedapenen ondorioz errebalorizatutako elementuen kasuan, kasuan kasuko xedapenetan ondorio horietarako emandako amortizazio arauak aplikatuko dira. Halakorik izan ezean 2.4. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

10. artikulua. Amortizazioa araubide bereziaren babeseko bat-egiteetan, erabateko zatiketetan edo partzialetan eta ekarpenetan.

Zergari buruzko foru legearen VIII. tituluko VIII. kapituluan ezarritako araubide bereziari atxikitako bat-egiteetan, erabateko zatiketetan edo partzialetan eta ekarpenetan, eskuratutako ondare elementu bakoitzarekin aurrez zeukan amortizazio metodoa aplikatuko beharko da, salbu eta zergadunak aukeratzen badu bere metodoa aplikatzea; horretarako, amortizazio plan bat egin beharko du, erregelamendu honen 8. artikuluan aurreikusitako moduan.

III. kapitulua. Finantza errentamenduko kontratuak

11. artikulua. Finantza errentamenduko kontratuak

1. Entitate errentariak zergari buruzko foru legearen 19.3 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta artikulua honetan ezarritako araubidea aplikatu nahi badute aktiboa eraikitzen egiaz hasten den unetik aurrera, gutxienez datu hauek dituen jakinarazpen bat aurkeztu beharko dute:

a) Finantza errentamendurako kontratuaren xede den aktiboaren identifikazioa.

b) Aktiboa eraikitzen hasi eta amaitzeko egunak adieraztea.

c) Finantza errentamendurako kontratuaren kuoten zenbatekoak eta noiz ordainduko diren adieraztea.

d) Aktiboek zergari buruzko foru legearen 19.3 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztela adieraztea

2. Jakinarazpena Nafarroako Zerga Ogasunean zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzuari egin beharko zaio, ondorioak zein zergalditan izatea nahi den, zergaldi hori amaitu aurretik.

IV. kapitulua. Hondatzeak eragindako galerak: kreditu arriskuaren estaldura finantza entitateetan.

12. artikulua. Kreditu arriskuaren estaldura finantza entitateetan.

1. Espainiako Bankuaren tutoretza administratiboaren menpe dauden finantza entitateen kreditu arriskuaren estaldurari dagozkion zuzkiduren kenkaria horretarako

emandako berariazko araudiaren eta sozietateen gaineko zergaren estatuko araudian ezarritakoaren arabera egingen da. Araudi hori bera aplikatuko zaie, kasua bada, Finantza-sektoreko Higiezin Aktiboak Saneatu eta Saltzeari buruzko urriaren 30eko 8/2012 Legearen 3. artikuluan aipatzen diren aktiboen kudeaketarako sozietateei, bai eta kreditu entitatearen sozietate talde bereko kide diren entitateei ere, Merkataritza Kodearen 42. artikulua esanahiarekin, zorren ordainketa gisa esleitu edo jasotako ondasun higiezinetako aktiboei dagokienez, Espainiako Bankuaren abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularren IX. eranskineko V. atala aplikatzekoa baldin bazaie.

Irizpide bera erabiliko da kostu amortizatuaren arabera baloratutako zor instrumentuek, zergari buruzko foru legearen 10.1.g) artikuluan aipatutako titulu bihurtzeko funtsak dituztenek, izandako balio-galeren balio zuzenketen kengarritasunari dagokionez.

V. kapitulua. Gastu kengarrien muga

13. artikulua. Gastu kengarrien muga

1. Amortizazio gisa kengarriak diren gastuak, zergari buruzko foru legearen 23.3 artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren turismoko ibilgailu automobilak eta haien atoiak, ziklomotorrak eta motozikletak erabiltzeak sortutakoak, erregelamendu honen 3.1 artikuluko taulan jasotako koefizienteak aplikatuz kalkulatu dira.

Errentamendu edo lagapen gastuen kasuan, kontzeptu honetako gastuen urteko muga erregelamendu honen 3.1 artikuluko amortizazio taulan ezarritako gehieneko amortizazio koefizienteak ezarriko du.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren gastuek ezin dira izan zenbateko hauek baino handiagoak amortizazio aldi

guztietan edo, kasua bada, errentamendu edo lagapen kontratuaren indarraldietan:

a) Oro har, zergari buruzko foru legearen 23.3.a) artikulua aipatzen duen kasuan, eskurapen balioaren %50, 12.500 euroko mugarekin.

b) Zergari buruzko foru legearen 23.3.b) artikulua aipatzen dituen kasuetan, eskurapen balioa, 25.000 euroko mugarekin.

2. Zergari buruzko foru legearen 23.4 artikulua aipatzen dituen garraio elementuak direnean, foru lege horren 23.3 artikuluko a eta b letretan ezarritako muga menpe baitaude, artikuluko honen 1. atalean ezarritakoa aplikatuko da.

VI. kapitulua. Plan bereziak

14. artikulua. Ingurumen arloko jarduketari dagozkien gastuen plana

1. Zergari buruzko foru legearen 21.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, zergadunek ingurumen arloko jarduketari dagozkien gastuen plan bat aurkezten ahalko diote Zerga Administrazioari.

Plana onesteko eskaera hori Zerga Administrazioan aurkeztu eta tramitatuko da, 17. artikuluan ezarritako prozedura orokorrarekin bat eta hurrengo apartatuetan zehazten diren berezitasunekin.

2. Eskabidean datu hauek adierazi behar dira:

a) Zergadunaren betebeharren deskribapena edo hark hartutako konpromisoena, ingurumenaren gaineko kalteen prebentziorako edo konponbiderako.

b) Egin beharreko jarduketaren deskribapen teknikoa eta justifikazioa.

c) Ingurumen arloko jarduketari dagozkion gastuen gutxi gorabeherako kalkulua eta zenbateko horren justifikazioa.

d) Ingurumen arloko jarduketari dagozkion gastuen gutxi gorabeherako zenbatekoaren denbora egozpena egiteko irizpidea eta haren justifikazioa.

e) Ingurumen arloko jarduketaren hasiera-data.

3. Plan horien eskaera zergadunak egingen dio Nafarroako Zerga Ogasunen zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzuari, ingurumenaren arloko jarduketarako betebeharra edo konpromisoa sortu eta hiru hurrengo hiru hilabeteetan.

4. Plan horiek zergadunak eskatuta aldatzen ahalko dira, kapitulu honetan aurreikusitako arauak beteta. Aldaketak zein zergalditan izan behar dituen ondorioak, zergaldi horren lehenbiziko hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da eskaera hori.

15. artikulua. Denbora egozpeneko planak sortzapenez beste irizpide batzuk aplikatzeko

1. Zergari buruzko foru legearen 15.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, kontabilitatearen ondorioetarako, sarreraren eta gastuen denbora egozpenerako sortzapeneko irizpidez beste bat erabiltzen duten entitateek eskaera bat aurkeztu beharko dute Zerga Administrazioan irizpide horrek eraginkortasun fiskala izan dezan.

Eskaera hori Zerga Administrazioan aurkeztu eta tramitatuko da, 17. artikuluan ezarritako prozedura orokorrarekin bat eta hurrengo apartatuetan zehazten diren

berezitasunekin.

2. Eskabidean datu hauek adierazi behar dira:

a) Denbora egozpenerako irizpidearen eraginpeko sarreraren eta gastuen deskribapena, haien izaeraz gain zergadunaren eragiketen multzoan duten garrantzia ere adieraziz.

b) Eraginkortasun fiskalaren eskaeraren xede den denbora egozpenerako irizpidearen deskribapena. Denbora egozpenerako irizpidea nahitaez bete beharrekoa baldin bada, zehaztu beharko da zein den betebeharra ezartzen duen kontabilitate araua.

c) Justifikatzea denbora egozpenerako proposatzen den irizpidea bat datorrela urteko kontuek eman behar duten irudi leialarekin eta ondarearen, finantza egoeraren eta zergadunaren emaitzen gainean duten eraginaren azalpena.

d) Denbora egozpenerako irizpideak duen eragina zerga ondorioetarako.

3. Eskaera Nafarroako Zerga Ogasunean zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzuari egin beharko dio zergadunak, ondorioak zein zergalditan izatea nahi den, zergaldi hori amaitu baino sei hilabete lehenago, gutxienez.

16. artikulua. Berrinbertsiorako plan bereziak

1. Inbertsioa, bere ezaugarri bereziengatik, zergari buruzko foru legearen 37. artikuluan aurreikusitakoa baino epe luzeagoan egin behar dela frogatzen bada, zergadunek berrinbertsiorako plan bereziak proposatzen ahalko dituzte.

Eskaera hori Zerga Administrazioan aurkeztu eta tramitatuko da, 17. artikuluan ezarritako prozedura orokorrarekin bat eta hurrengo apartatuetan zehazten diren

berezitasunekin.

2. Eskameran alderdi hauek jasoko beharko dira:

a) Eskualdatu diren edo eskualdatuko diren ondare elementuen deskribapena.

b) Eskualdaketaren emaitzaren zenbatekoa, egiazkoa edo aurreikusitakoa.

c) Berrinbertsioa zein ondare elementutan gauzatuko den, horien deskribapena.

d) Berrinbertsioa egiteko denbora planaren deskribapena.

e) Berrinbertsio plan berezia justifikatzen duten inguruabar berezien azalpena.

3. Berrinbertsio plan berezia epe hauetan aurkeztuko da:

a) Inbertsio aurreratua denean, inbertsio aurreratua noiz egin edo hasi aurreikusi den, egun horren aurreko sei hilabeteen barruan. Kasu horretan, berrinbertsioa urtebete igaro aurretik egin edo hasi beharko da, berrinbertsio plan berezia onesten den egunetik aurrera kontatuta.

b) Gainerako kasuetarako, sei hilabeteko epean, ohiz kanpoko etekina ekarri duen eskualdaketaren egunetik aurrera. Kasu horretan, eskualdaketaren emaitzaren zenbateko osoaren 100eko 25 gutxienez zergari buruzko foru legearen 37.1 artikuluan ezarritako epean berrinbertitu beharko da.

17. artikulua. Irizpideak onesteko eta planei buruz ebazteko prozedura

1. Zergadunak kasuko eskaera zerga Administrazioan

aurkezten duenean hasiko da prozedura.

Zergadunak atzera egin dezake eskaeran, edo eskaera alternatibo bat aurkeztu prozedurako edozein unetan.

2. Prozedura instruitzeko eta haren gaineko ebazpena emateko eskumena zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzuari dagokio; zerbitzu horrek zergadunari beharrezkoak diren datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak eskatzen ahalko dizkio, bai eta eskaerari buruzko azalpenak edo argibideak. Era berean, komenigarri iruditzen zaizkion txostenak eskatzen ahalko dizkie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio unitate organikoiei.

Aurkeztutako dokumentazioak kasuko prozedurari dagokionez baizik ez du ondoriorik izanen, eta hari dagokionez baizik ez da erabiliko; horrek ez ditu zergadunak salbuesten zerga araudian ezarritakoaren arabera dagozkien gainerako betebeharretatik.

Eskaeran atzera egiten bada, iraungitzen bada edo ezesten bada, aurkeztutako dokumentazioa itzuli egingen zaio zergadunari.

3. Ebazpen proposamena, datuekin, txostenekin, aurrekariekin eta frogagiriekin batera, zergadunari helaraziko zaizkio, eta hark hamabost eguneko epea izanen du alegazioak egin eta bidezkotzat jotzen dituen agiriak eta justifikazioak aurkezteko.

Tramite hori ez da egin beharko, prozeduran ez badago zergadunak aurkeztutako egitate, alegazio eta frogak besterik, edo horiek bakarrik hartzen badira kontuan ebazpenean.

4. Prozedura sei hilabeteko epean amaitu beharko da, gehienez, eskaera aurkezten denetik hasita.

Aurreko paragrafoan aipatzen den epea ebazpen espresik eman gabe iragaten bada, zergadunak aurkeztutako irizpidea edo plana onetsi dela ulertuko da.

Zergadunak atzera egiteak prozeduraren amaiera ekarriko du.

5. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta haren ondorioa izanen da:

a) Zergadunak hasiera batean aurkeztutako irizpidea edo plana onestea.

b) Prozeduran zehar aurkeztutako irizpide edo plan alternatibo bat onestea, hasieran aurkeztutakoaz bestelakoa, zergadunaren adostasunarekin.

c) Zergadunak hasiera batean aurkeztutako irizpidea edo plana ezestea.

6. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren kontra berraztertze errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkezten ahalko da, Tributuei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorraren IV. tituluaren VII. kapituluaren 3. eta 4. sekzioetan ezarritakoarekin bat.

7. Onetsitako irizpideak edo planak eskaera aurkeztu ondoren amaitzen diren zergaldietan izanen ditu ondorioak, salbu eta beste data bat ezartzen bada berariaz.

Zerga Administrazioak eta zergadunek onetsitako irizpideak edo planak ezartzen duena aplikatu beharko dute.

8. Zerga Administrazioak egiaztatzen ahalko du eskaeran deskribatutako egitateak eta eragiketak bat datozela benetan egindakoeekin eta onetsitako irizpidea edo plana behar bezala aplikatu dela.

Egiaztapenaren ondorioa baldin bada eskaeran deskribatutako egitateak eta eragiketak ez datozela bat errealitatearekin, edo onetsitako irizpidea edo plana ez dela behar bezala aplikatu, Zerga Administrazioak zergadunen zerga egoera erregularizatuko du.

VII. kapitulua. Eragiketa lotuak baloratzeko arauak eta egiaztatze prozedura

1. sekzioa. Eragiketa lotuen merkatuko balioaren ezarpena.

18. artikulua. Eragiketa lotuen merkatuko balioaren ezarpena: alderagarritasun azterketa

1. Zergari buruzko foru legearen 28.2 eta 29. artikuluetan aipatzen den merkatuko balioa ezartzearen ondorioetarako, eragiketa lotuen inguruabarrak alderatuko dira parekatzeko modukoak diren eta pertsona edo entitate independenteen artean egiten diren eragiketen inguruabarrekin.

Horretarako, kontuan hartu beharko dira pertsona edo entitate lotuen arteko harremanak eta alderatu beharreko eragiketen baldintzak, eragiketen izaerari eta aldean jokabideari begiratuta.

2. Bi eragiketa edo gehiago parekatzeko modukoak direla ezartzeko, inguruabar hauek hartuko dira kontuan, garrantzitsuak diren neurrian:

a) Eragiketa lotuen xede diren ondasun edo zerbitzuen berariazko ezaugarriak.

b) Azterketaren xede diren eragiketei dagokienez aldeek beren gain hartzen dituzten eginkizunak, beren gain hartutako arriskuak identifikatuz eta erabilitako aktiboen

ponderazioa eginez, kasua bada.

c) Eragiketen jatorria diren kontratu-baldintzak, alde kontratatzaile bakoitzak bere gain hartutako erantzukizunak, arriskuak eta onurak aintzat hartuta.

d) Eragiketa lotuei eragiten ahal dieten inguruabar ekonomikoak, bereziki ondasunak entregatu edo zerbitzuak emateko erabiltzen diren merkatuen ezaugarriak, edo eragiketa lotuei eragiten ahal dieten beste faktore ekonomiko batzuk.

e) Estrategia enpresarialak

Halaber, merkatuko balioa ezartzearen ondorioetarako, kontuan hartu beharko da garrantzia duen beste edozein inguruabar, zergadunak hari buruzko informazioa eskura izan duenean, hala nola, galerak izatea, botere publikoen erabakien eragina, lokalizazio aurrezkiak, langile talde integratuak edo sinergiak egotea.

Edozein kasutan, alderaketa egiteko aintzat hartu beharreko elementuak adierazi beharko dira, barnekoak nahiz kanpokoak.

3. Bi eragiketa edo gehiago parekatzeko modukoak dira haien artean desberdintasun nabarmenik ez badago 2. apartatuan aipatzen diren inguruabarrei dagokienez, ondasunaren edo zerbitzuaren prezioan eragina badute edo eragiketatik kanpo, edo, nahiz eta desberdintasunak izan, behar diren zuzenketak eginez desberdintasun horiek kentzen ahal direnean.

4. Zergadunak egindako eragiketa lotuak elkar atxikirik daudenean edo modu jarraituan eginak direnean, edo produktu edo zerbitzu oso antzekoen multzo bati eragiten diotenean, halako moduan non haien balorazio

independentea ez baita egokia, artikulua honetan aipatzen den alderagarritasun azterketa egiteko eragiketa guztiak hartuko dira kontuan.

5. Artikulu honetan aurreikusitako alderagarritasun azterketa 31. artikuluan aipatzen den dokumentazioan sartuta dago eta 31.1.b artikuluan ezarritako betebeharra betetzen du.

6. Alderagarritasun gradua, eragiketaren izaera eta eragiketa parekagarriari buruzko informazioa dira balorazio metodo egokiena ezartzeko faktoreak, kasu bakoitzean, zergari buruzko foru legearen 29.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

7. Nahiko daturik izan gabe ere, lehia askearen printzipioa modu egokian betetzen duen balio maila ezarri ahal denean, alderagarriak hautatzeko prozesua eta eskura dagoen informazioaren mugak kontuan hartuta, neurri estatistikoak erabiltzen ahalko dira, alderagarritasunaren akatsek eragindako okerren arriskua gutxitzeko.

19. artikulua. Pertsona edo entitate lotuen artean kostuak banatzeko izenpetutako akordioetarako baldintzak

Zergari buruzko foru legearen 33.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, ondasun eta zerbitzuen kostuak banatzeko zergadunak izenpetzen dituen akordioetan jaso beharko da partaide diren gainerako pertsona edo entitateen identifikazioa, erregelamendu honen 31.1.a) artikuluan aurreikusitako moduan, akordioek bere baitan hartzen dituzten jarduera eta proiektu berariazkoen esparrua, haien iraupena, espero diren etekinak partaideen artean banatzeko irizpideak, partaideen ekarpenak kalkulatzeko modua, haien lanak eta erantzukizunak, partaideen atxikitze edo bereiztearen ondorioak, bai eta beste edozein xedapen,

akordioaren baldintzak aldatzea aurreikusten duena inguruabar ekonomikoen aldaketa bat islatzeko.

2. sekzioa. Eragiketa lotuen egiaztapena

20. artikulua. Eragiketa lotuen merkatuko balioaren egiaztapena

1. Eragiketa lotuen egiaztapena ikuskapen prozeduran egin beharreko erregularizazioaren xede bakarra ez denean, hartatik sortutako likidazio proposamena bereizirik jasoko da akta batean, eta ez zerga betebeharraren gainerako elementuak formalizatzeko erabiliko den akta berean. Akta horretan zergari buruzko foru legearen 29. artikulua aplikatzeak ekarritako erregularizazioa justifikatuko da. Akta horrek dakarren likidazioak behin-behineko izaera izanen du.

2. Egindako erregularizazioaren ondorioz ezarritako behin-behineko likidazioaren kontra zergadunak errekurtsioa edo erreklamazioa aurkezten badu, likidazio hori eta berraztertze prozedura jakinaraziko zaizkie ukitutako gainerako pertsona edo entitateei, prozeduran pertsona daitezten.

Bidezko epeak iraganik, zergadunak errekurtsio edo erreklamaziorik jarri ez badu, behin-behineko likidazioa ukitutako gainerako pertsona edo entitate lotuei jakinaraziko zaie, eta nahi dutenek, batera, berraztertze errekurtsioa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzen ahalko dute. Alde edo entitate lotuen artean akordiorik egon ez eta berraztertze bi bideak aldi berean erabiltzen badira, lehenbizi aurkeztutako errekurtsioa edo erreklamazioa tramitatuko da eta bigarrena edo ondorengoa onartezina dela deklaratu da.

3. Zergari buruzko foru legearen 29. artikuluan

aurreikusitako metodoak aplikatzeko beharrezkoa izan denean ondasunen edo eskubideen balioa egiaztatzea Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 44. artikuluan ezarritako bideetako bat erabiliz, zergadunak peritu-tasazio kontraesanezkoa sustatzen ahalko du, ondasun edo eskubide horren balio egiaztatua zuzentzeko. Zergadunak peritu-tasazio kontraesanezkoa sustatzen badu, organo eskudunak zergadunari eta ukitutako gainerako pertsona edo entitate lotuei jakinaraziko die Administrazioko peritu batek emandako txostena, eta hamabost eguneko epea emanen die peritu bat izendatzeko, denak ados jarri ondoren; peritu horrek baloratu beharreko ondasun edo eskubideen izaerarekin bat datorren titulua izan beharko du. Peritu-tasazio kontraesanezkoaren prozedura Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren 44.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz tramitatuko da.

Peritu-tasazio kontraesanezkoaren prozedura behin amaituta, 2. apartatuan adierazitakoa egingen da, tasazioak emandako balioak ekarritako behin-behineko likidazioaren kontra ezarriko diren balizko errekurtsio edo erreklamazioei dagokienez.

Apartatu honetan xedatutakoarekin bat, posible denean peritu-tasazio kontraesanezkoaren prozedura sustatzea eta bidezkoak diren epeak iragan badira zergadunak tasazio hori sustatu edo errekurtsio edo erreklamaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko likidazioa jakinaraziko zaie ukitutako gainerako pertsona edo entitate lotuei, nahi dutenek aukera izan dezaten, batera, peritu-tasazio kontraesanezkoa sustatzeko edo dagokion errekurtsioa edo erreklamazioa aurkezteko. Alde edo entitate lotuen arteko akordiorik egon ez eta peritu-tasazio kontraesanezkoaren eskaerarekin batera errekurtsio edo erreklamazio bat aurkezten bada, eskaera bideratuko da lehenik, zergari buruzko foru

legearen 28.4 artikuluan aipatzen den balioa ezartzeko. Peritu-tasazio kontraesanezkoa egiteko eskaera aurkezteak eteteko ondorioak izanen ditu, eta peritu-tasazio kontraesanezko horrekin batera aurkeztu diren errekurtsioak eta erreklamazioak ez onartzea ekarriko du.

Aurreko paragrafoan aipatutako peritu-tasazio kontraesanezkoaren prozedura amaitutakoan, alde edo entitate lotuek, batera, 2. apartatuan aipatutako moduan, berraztertze errekurtsioa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzen ahalko dute tasazioak emandako balioak ekarri duen behin-behineko likidazioaren aurka.

4. Zergadunari egindako likidazioa behin irmo bilakatu ondoren, gainerako pertsona edo entitate lotuen zerga egoera erregularizatuko da, non ez duten egin erregularizazio hori aldez aurretik. Erregularizazio hori egiteko, likidazio bat egingen da, edo, kasua bada, autolikidazio bat, edo likidazioa irmo bilakatzen denean aitorpena eta sarrera egiteko epea amaitua duen azken zergaldiari dagokion autolikidazioa zuzentzeko eskaera batetik sortutako likidazio bat. Zergaldirik ez duten zergen kasuan, erregularizazio hori egiteko likidazio bat egingen da, likidazioa irmo bilakatzen den uneari dagokiona, edo, kasua bada, autolikidazio bat edo likidazio bat, zergapekoari egindako autolikidazioa zuzentzeko eskaera batetik sortutakoa.

Zergaldiak dituzten zergen kasuan, berriz, erregularizazioan sartu beharko dira Zerga Administrazioak eragiketa lotuaren egiaztapena dela-eta egindako zuzenketak ukitzen dituen guztiak.

Erregularizazioan sartuko dira, kasua bada, dagozkion berandutze-interesak, eragiketa lotuak ondorioak izan dituen zergaldietako bakoitzean autolikidazioa aurkezteko

ezarritako epea amaitzen denetik aurrera kalkulatuta, edo, erregularizazioak itzulketa eragin baldin bada, eta autolikidazioa epez kanpo aurkeztu bazen, autolikidazioa aurkeztu zenetik aurrera.

Interesak likidazioa edo, kasua bada, autolikidazioa egiten den egunera arte kalkulatuko dira, eragiketa horren erregularizazioak gainerako pertsona edo entitate lotuekiko eraginkortasuna duen zergaldiari dagokiona hain zuzen, zergari buruzko foru legearen 29.3.Hirugarrena artikuluan ezarritakoarekin eta apartatu honen lehen paragrafoan ezarritakoarekin bat.

Zerga administrazioak egindako erregularizazioa kontuan hartu beharko dute zergadunek likidazioa irmo bilakatu ondoren aurkezten dituzten aitorpenetan, eragiketa lotuak ondorioak eragiten baditu horietan.

Likidazioa egiteko, ikuskapen organoek Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 130. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako ahalmenez baliatzen ahalko dira, eta informazioa lortzeko beharrezkotzat jotzen dituzten lanak egin.

5. Ukitutako pertsona edo entitateek, barne antolamenduaren parte bilakatu den tratatu edo hitzarmen bat argudiatu dezaketenek, adiskidetasunezko prozedurara edo arbitraje prozedurara jotzen ahalko dute, balorazioaren zuzenketak eragindako balizko ezarpen bikoitza kentzeko, zergari buruzko foru legearen 29.3.Bosgarrena artikuluan xedatutakoarekin bat.

3. sekzioa. Ondare itzulketa

21. artikulua. Ondare itzulketa, eragiketa lotuetarako hitzartutako balioaren eta merkatuko balioaren arteko aldeek eragindakoa

1. Eragiketan hitzartutako balioa merkatuko balioa bera ez den kasuetan, pertsona edo entitate lotuen kasuan bi balioen arteko aldeari emanen zaion tratamendu fiskala izanen da alde hori izatearen ondorioz agerian jarri diren errenten izaerari dagokion tratamendu bera, zergari buruzko foru legearen 29.2 artikuluan xedatutakoarekin bat.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko ondare-itzulketara pertsona edo entitate lotuen artean gertatzen denean. Horretarako, zergadunak itzulketara justifikatu beharko du 1. apartatuan aipatutakoaren aplikazioa barne hartzen duen likidazioa eman aurretik.

VIII. kapitulua. Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak baloratzeko aldeez aurreko akordioak

22. artikulua. Prozeduraren hasiera

1. Pertsona edo entitate lotuek pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak baloratzeko akordio bat eskatzen ahalko diote zerga Administrazioari, eragiketara horiek egin aurretik, 24.8 artikuluan ezarritakoa galarazi gabe.

Atzerrian establezimendu iraunkor bat duen zergadunak egindako eragiketengatik kalkulatzeko diren errenten merkatuko balioa ere ezartzea sartzen ahalko da eskaera horretan, aplikatzeko den nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen batean hala ezarrita dagoen kasuan.

Eskaerari proposamen bat erantsiko zaio, lehia askearen printzipioan oinarritua, eta bertan merkatuko balioa ezartzeko erabilitako metodoa eta azterketa deskribatuko dira.

Eskaera pertsona edo entitate eskatzaileek izenpetu beharko dute, eta Administrazioaren aurrean frogatu eskatzen den balorazioaren xede diren eragiketak egin behar

dituzten gainerako pertsona edo entitate lotuek balorazio eskaera ezagutu eta onartzen dutela.

2. Eskaerari 30. eta 31. artikuluetan aipatzen den dokumentazioa erantsi beharko zaio, balorazio proposamenari aplikatzekoa den aldetik, eta kasuaren ezaugarrietara egokituko da.

3. Eskaera tramitera ez onartzeko erabaki arrazoitua hartzen ahalko da, inguruabar hauetako bat tartean dagoenean:

a) Agerikoa denean egin nahi den balorazio proposamenak inolako oinarririk ez duela merkatuko balio normala ezartzeko.

b) Egin nahi den proposamena eta lehenago ezetsi diren beste batzuk funtsean berdinak direnean.

c) Balorazio proposamenaren bidez saihesten ahal den ezarpen bikoitzaren arriskurik ez dagoela irizten zaionean.

d) Egin nahi den proposamena ezetsi eginen dela ezartzeko bide ematen duen garrantzizko beste edozein inguruabar dagoenean.

23. artikulua. Tramitazioa eta organo eskudunak

1. Zerga Administrazioak proposamena aztertuko du aurkeztutako dokumentazioarekin, eta zergadunei proposamenarekin zerikusia duten datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak eskatzen ahalko dizkie, bai eta hari buruzko azalpen edo argibide osagarriak ere.

Sozietateen gaineko zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzuari dagokio prozedura instruitzea eta ebazpena ematea.

2. Aurkeztutako dokumentazioak kapitulu honetan araututako prozedurari dagokionez baizik ez du ondoriorik izanen, eta hari dagokionez baizik ez da erabiliko; horrek ez ditu subjektu pasiboak salbuesten zerga araudian ezarritakoaren arabera dagozkien gainerako betebeharretatik.

Proposamenean atzera egiten bada, iraungitzen bada edo ezesten bada, aurkeztutako dokumentazioa itzuli eginen zaio zergadunari.

24. artikulua. Amaiera, akordioaren ondorioak eta errekurtsioak

1. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren ondorioa izanen da:

a) Zergadunak aurkeztutako balorazio proposamena onestea

b) Hasieran onetsitakoaz bestelakoa den balorazio proposamen bat onestea, zergadunaren adostasunarekin.

a) Zergadunak aurkeztutako proposamena ezestea.

2. Baloraziorako aldez aurreko akordioa agiri batean formalizatuko da, datu hauek jasota, gutxienez:

a) Formalizazioaren tokia eta eguna.

b) Proposamenak aipatzen dituen zergadunen izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Zergadunak ados egotea akordioaren edukiarekin.

d) Proposamenak aipatzen dituen eragiketen deskribapena.

e) Balorazio metodoaren funtsezko elementuak eta metodoti sortutako balio tartea, halakorik bada.

f) Akordioa zein zergaldiri edo likidazio aldiri aplikatuko zaien eta akordioak indarra hartzeko eguna.

g) Akordioa akordioan bertan jasotzeko moduan aplikatzeko aukerak baldintzatzen dituzten alderdi kritikoak, aldeek bere gain hartutakoak.

3. Balorazio proposamena ezestean, zergadunen identifikazioarekin batera, Zerga Administrazioak proposamena ezesteko dituen arrazoiak ere jasoko dira.

4. Prozedura ebazteko epea sei hilabetekoa izanen da, proposamena jasotzen denetik hasita. Epe hori interesdunari ebazpen espresik jakinarazi gabe iragaten bada, proposamena ezetsi egin dela ulertuko da.

5. Zerga Administrazioak eta zergadunek onetsitako proposamenaren emaitza aplikatu beharko dute.

6. Zerga Administrazioak egiaztatzen ahalko du proposamenean deskribatutako egitateak eta eragiketak bat datozela benetan egindakoekin eta onetsitako proposamena behar bezala aplikatu dela.

Egiaztapenaren ondorioa baldin bada onetsitako proposamenean deskribatutako egitateak eta eragiketak ez datozela bat errealitatearekin, edo onetsitako proposamena ez dela behar bezala aplikatu, tributu ikuskatzailtzak zergadunen tributu egoera erregularizatuko du.

7. Zergadunetatik edozeinek atzera egiteak prozeduraren amaiera ekarriko du.

8. Akordioaren ondorioak akordio onesten den egunetik aurrera egiten diren eragiketei aplikatuko zaizkie.

Akordioak balioa izanen du akordioan bertan ezartzen diren zergaldietan, baina ez du akordioa onesten den egunetik hasita ondoko lau zergaldi baino gehiago iraunen.

Halaber, finkatzen ahalko da aurreko zergaldietan egindako eragiketetan izanen dituela ondorioak, baldin eta preskribitu ez bada administrazioaren eskubidea zerga zorra zehazteko kasuan kasuko likidazioaren bidez eta ez bada likidazio irmorik eskaeraren xedeko eragiketen gainean.

9. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren edo ezespeneko presuntziozko egintzaren kontra ezin izanen da errekurtsorik aurkeztu, baina horrek ez du galaraziko aurrerago errekurtsioak aurkeztea likidazio egintzen kontra.

25. artikulua. Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak baloratzeko akordioaren aplikazioari buruzko informazioa

Sozietateen gaineko zergaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren aitortpenarekin batera, zergadunek idazki bat aurkeztuko dute baloraziorako onartu den alde aurreko akordioaren aplikazioari buruzkoa, besteak beste informazio hau jaso beharko duena:

a) Aitorpenak hartzen duen zergaldian edo likidazioaldian egindako eragiketak, alde aurreko akordioaren aplikazioaren xede izan direnak.

b) Aldez aurreko akordioaren aplikazioaren ondorioz aurreko eragiketei ezarri zaizkien prezioak edo balioak.

c) Baloraziorako alde aurreko akordioaren garaian zeuden inguruabar ekonomikoetan izandako aldaketa nabarmenen deskribapena, aldaketarik izan bada

d) Zergaldian edo likidazio aldian egindako eragiketak, aldez aurreko akordioan aipatzen direnen antzekoak, ezarri zaizkien prezioak eta aldez aurreko akordioaren esparruan sartutako eragiketekiko desberdintasunen deskribapena.

e) Akordioan bertan ezartzen dena.

Nolanahi ere, beste administrazio batzuekin sinatutako akordioetan, zergadunak urtero aurkeztu beharko duen dokumentazioa akordioak berak ezarritakoa izanen da.

26. artikulua. Baloraziorako aldez aurreko akordioaren aldaketa

1. Baloraziorako aldez aurreko akordioa onetsi zenean zeuden inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatuz gero, akordioa inguruabar ekonomiko berriei egokitzeko aldatzen ahalko da. Aldaketarako prozedura ofizioz has daiteke, edo zergadunek eskaturik.

2. Aldatzeko eskaera pertsona edo entitate eskatzaileek izenpetu beharko dute, eta Administrazioaren aurrean frogatu eskatzen den balorazioaren xede diren eragiketak egin behar dituzten gainerako pertsona edo entitate lotuek aldaketarako eskaera ezagutu eta onartzen dutela. Eskaera informazio hau jaso beharko da:

a) Inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatu direla justifikatzea.

b) Aldaketa hori dela eta, bidezkoa den moldaketa.

Ukitutako pertsona edo entitateetako edozeinek atzera egiteak aldatzeko prozeduraren amaiera ekarriko du.

Zerga Administrazioak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta zergadunei hamabost eguneko epea

utzita entzutea emateko, ebazpen arrazoitua emanen du, eta haren ondorioa hauetako bat izanen da:

Lehena. Zergadunek egindako aldaketa onestea.

Bigarrena. Hasieran aurkeztutakoaz bestelakoa den balorazio proposamen bat onestea, zergadunaren adostasunarekin.

Hirugarrena. Zergadunek aurkeztutako aldaketa ezestea, hasiera batean onetsitako alde zurreko akordioa berretsiz edo ondoriorik gabe utziz.

3. Aldaketarako prozedura Zerga Administrazioak hasitakoa denean, proposamenaren edukia zergadunei jakinaraziko zaie, eta hilabeteko epea izanen dute jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita, hau egiteko:

a) Aldaketa onartu.

b) Aldaketa alternatibo bat aurkeztu, behar bezala justifikatuta.

c) Aldaketari uko egin horretarako arrazoiak adieraziz.

Zerga Administrazioak ebazpen arrazoitua emanen du aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta ondorioa hauetako bat izanen da:

Lehena. Aldaketa onestea, zergadunek onartu badute.

Bigarrena Zergadunen onarpenarekin beste aldaketa alternatibo bat onestea.

Hirugarrena. Baloraziorako hasierako proposamena onesteko hartutako erabakia ondoriorik gabe uztea.

Laugarrena. Baloraziorako hasierako proposamenaren

aplikazioaren jarraipena deklaratzeko.

4. Beste zerga administrazio batekin akordio bat onartu baldin bada, baloraziorako alde zuzeneko akordioaren moldaketarako beharrezkoa izanen da aurretik administrazio horrekin lortutako akordioa aldatzea. Horretarako, 28. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

5. Prozedura sei hilabeteko epean amaitu beharko da. Epe hori ebatzen espresik jakinarazi gabe iragaten bada, aldaketarako proposamena ezetsi egin dela ulertuko da.

6. Aldatzeko prozedurari amaiera ematen dion ebatzenaren edo ezespeneko presuntziorako egintzen kontra ezin izanen da errekurtsorik aurkeztu, baina horrek ez du galaraziko aurrerago errekurtsioak eta erreklamazioak aurkeztea likidazio egintzen kontra.

7. Aldaketa onesteak 24. artikuluan aipatutako ondorioak izanen ditu, aldaketarako eskaera aurkeztu ondoren edo aldaketa-proposamena jakinarazi ondoren egiten diren eragiketei dagokienez.

8. Baloraziorako alde zuzeneko akordioa, hasierakoa, ondoriorik gabe uzten duen ebatzenak 24. artikuluan aurreikusitako ondorioak iraungitzea ekarriko du, aldaketarako eskaera aurkeztu ondoren edo aldaketa-proposamena jakinarazi ondoren egiten diren eragiketei dagokienez.

9. Zergadunek egindako aldaketa ezesteak ondorio hauek izanen ditu:

a) 24. artikuluan aurreikusitako ondorioak berrestea, inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatu direla frogatzen ez denean.

b) 24. artikuluan aurreikusitako ondorioak iraungitzea, ezespenaren ondotik egindako eragiketei dagokienez, gainerako kasuetan.

27. artikulua. Baloraziorako alde zurreko akordioaren luzapena

1. Zergadunek Zerga Administrazioari onetsitako balorazio akordioaren balio epea luzatzeko eskatzen ahalko diote. Eskatera hori balio epea amaitu zurreko sei hileko epean aurkeztu beharko da, eta harekin batera dokumentazioa aurkeztu beharko da, jatorrizko eskaeran jasotako inguruabarrak ez direla aldatu frogatzeko, zergadunei komenigarri iruditzen zaien guztia.

2. Alde zurreko baloraziorako akordioa luzatzeko eskatera alde zurreko akordioa, luzatzeko eskaeraren xede dena, izenpetu zuten pertsonak edo entitateek izenpetu beharko dute, eta Administrazioaren aurrean frogatu beharko dute eragiketak egin behar dituzten gainerako pertsona edo entitate lotuek luzatzeko eskatera ezagutu eta onartzen dutela.

3. Zerga administrazioak sei hileko epea izanen du 1. apartatuan aipatzen den dokumentazioa aztertzeke eta zergapekoei jakinarazteke baloraziorako alde zurreko akordioaren balio epea luzatzen den edo ez. Ondorio horietarako, Administrazioak edozein informazio eta dokumentazio osagarri eskatzen ahalko du.

4. Zurreko 3. apartatuan aipatzen den epea iragaten bada baloraziorako alde zurreko akordioaren balio epearen luzapena jakinarazi gabe, eskatera ezetsi egin dela ulertuko da.

5. Akordioa luzatzea erabakitzen duen ebazpenaren edo ezespeneko presuntziozko egintzaren kontra ezin izanen da

errekurtsorik aurkeztu, baina horrek ez du galaraziko errekurtsuak eta erreklamazioak aurkeztea aurrerago likidazio egintzen kontra.

28. artikulua. Eragiketa lotuen gaineko akordioa beste zerga administrazio batzuekin egiteko prozedura

Zergari buruzko foru legearen 34. artikuluan ezarritako akordioarekin bat eta Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako bitartekoak erabiliz, Foru Komunitateko Administrazioak akordioak formalizatzen ahalko ditu beste zerga administrazio batzuekin, eragiketen merkatuko balioa batera ezartzeko. Akordio horiek egiteko prozedura kapitulu honetan aurreikusitako arauei jarraikiz beteko da, berezitasun hauekin:

A) Prozeduraren hasiera.

1. Zergapeko zergadunek eskatzen badute egindako proposamena pertsona edo entitate lotuek egoitza duten herrialde edo lurraldeko beste zerga administrazio batzuek azter dezaten, Zerga Administrazioak baloratuko du bidezkoa den prozedura hori hastea. Prozeduraren hasiera ezesteak arrazoitua izan beharko du, eta ezin izanen da aurkaratu.

2. Baloraziorako alde zuzeneko prozedura batean, Zerga Administrazioaren iritziz egokia baldin bada gaia beste zerga administrazio batzuen esku uztea azter dezaten, haiei ere eragin diezaiekeelakoan, horren berri emanen die pertsona edo entitate lotuei. Zergadunak hala egitea onartu beharko du beste administrazioari jakinarazi aurretik.

3. Zergadunak 22. artikuluan aurreikusitako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko du hasierako eskaera.

B) Tramitazioa.

1. Beste zerga administrazio batzuekiko hartu-emanetan, pertsona edo entitate lotuek balorazio proposamenarekin zerikusia duten datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak eskuratu beharko dizkiete.

Zergadunek parte hartzen ahalko dute akordioa zehazteko jarduketetan, bi zerga administrazioetako ordezkariak hala adosten dutenean.

2. Zerga administrazioen akordiorako proposamena jakinaraziko zaie interesdunei, eta haien onarpena beharko da administrazioen arteko akordioa sinatu aurretik.

Akordiorako proposamenaren aurka egonez gero, balorazio proposamena ezetsi egingen da.

C) Ebazpena.

Akordiorako proposamena onartuz gero, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari-kudeatzaileak izenpetuko du akordioa beste Zerga Administrazioarekin, eta interesdunei haren kopia igorriko zaie.

Sozietateen gaineko zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzuak instruituko du prozedura eta ezarriko ditu beste zerga administrazioekin beharrezkoak diren harremanak.

D) Beste zerga administrazio baten eskaera.

Beste zerga administrazio batek eskatzen badio Nafarroako Zerga Ogasunari pertsona edo entitate lotuen artean egindako eragiketen baloraziorako akordio bat izenpetzeko prozedura hasteko, artikulua honetan aurreikusitako arauak bete beharko dira, aplikatzekoak diren neurrian.

IX. kapitulua. Eragiketa lotuei buruzko dokumentazioa

29. artikulua. Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketei buruzko dokumentazioa

1. Zergari buruzko Foru Legearen 30. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, pertsona edo entitate lotuek, egindako eragiketak beren merkatuko balioaren arabera baloratu direla frogatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute Zerga Administrazioak eskatzen badu:

a). Erregelamendu honen 30. artikuluan aipatzen den dokumentazioa, zergadunaren taldeari buruzkoa, taldea zergari buruzko foru legearen 28.1 artikuluan ezarritako moduan definituta, taldearen parte diren establezimendu iraunkorrak barne.

b) Zergadunari buruzko dokumentazioa, 31. artikuluan aipatzen dena. Espainiako lurraldeko entitate ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrak ere beharturik egonen dira dokumentazio hori aurkeztera.

Dokumentazio horrek Zerga Administrazioaren esku egon beharko du aitorpenerako borondatezko epea amaitzen den egunetik aurrera, eta independentea da Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskatzen ahal duen beste edozein dokumentazio edo informazio osagarritik, Tributuei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorrean eta hura garatzeko araudian xedatutakoarekin bat.

Aipatutako dokumentazioa proportzionaltasunaren eta nahikotasunaren printzipioekin bat egin beharko da. Dokumentazioa prestatzean, zergadunak beste helburu batzuetarako duen dokumentazio garrantzizkoa erabiltzen ahalko du.

2. Zergadunak bere eragiketa lotuei buruzko informazioa jarri beharko du aitorpenean, hala aurreikusten

denean, zerga gaietan eskumena duen departamentuko titularrak foru agindu bidez ezartzen duen moduan.

30. artikulua. Zergadunaren taldeari buruzko dokumentazioa

1. Taldeari buruzko dokumentazioak honakoak jaso beharko ditu:

a) Taldearen egiturari eta antolaketari buruzko informazioa:

Lehena. Taldearen egituraren deskribapen orokorra - antolaketakoa, juridikoa eta operatiboa-, bai eta horretan izandako aldaketa garrantzitsu oro ere.

Bigarrena. Taldeko kide diren entitate desberdinen identifikazioa.

b) Taldearen jarduerari buruzko informazioa:

Lehena. Taldearen jarduera nagusiak, eta, horrekin batera, hauen deskribapena: taldearen jardun leku diren merkatu geografiko nagusiak, etekinen iturri nagusiak eta taldeak kasuko zergaldian izandako negozio zifraren zenbateko garbiaren ehuneko 10, gutxienez, egiten duten ondasun eta zerbitzuen horniketa katea.

Bigarrena. Honakoen deskribapen orokorra: taldeko entitateek betetzen dituzten eginkizunak, beren gain hartutako arriskuak eta aktibo nagusiak, aurreko zergalditik izandako aldaketak barne.

Hirugarrena. Taldeak transferentzia prezioen arloan duen politikaren deskribapena, barne hartuta taldeak prezioak ezartzeko onartutako metodoa edo metodoak.

Laugarrena. Taldeko entitateen artean kostuak

banatzeko dauden akordioen eta zerbitzuak emateko kontratu nabarmenen zerrenda eta deskribapen laburra.

Bosgarrena. Zergaldian aktibo nabarmenen berrantolaketa, eskurapen edo lagapenerako egindako eragiketen deskribapena.

c) Taldearen aktibo ukiezinei buruzko informazioa:

Lehena. Aktibo ukiezinaren garapen, jabetza eta ustiapenari dagokienez taldeak duen estrategia globalaren deskribapen orokorra, ikerketa eta garapen ekintzak egiten diren instalazio nagusien kokapena eta ekintza horien zuzendaritza barne.

Bigarrena. Transferentzia prezioen ondorioetarako garrantzia duten taldearen aktibo ukiezinaren zerrenda, adierazita horien entitate titularrak, eta taldeak horiei dagokienez transferentzia prezioen gaian duen politikaren deskribapen orokorra.

Hirugarrena. Taldeak, aktibo ukiezinaren erabileratik sortuta izandako eragiketa lotuei dagozkien kontraprestazioen zenbatekoa, talde barruan ukitutako entitateak eta haien egoitza fiskaleko lurraldeak identifikatuta.

Laugarrena. Taldeko entitateen artean ukiezinei dagokienez egindako akordioen zerrenda, kostuak banatzeko akordioak, ikerketa zerbitzuetarako akordio nagusiak eta lizentzien akordioak barne hartuta.

Bosgarrena. Zergaldian aktibo ukiezinei dagokienez egindako edozein transferentzia garrantzitsuren deskribapen orokorra, entitateak, herrialdeak eta zenbatekoak barne.

d) Finantza jardunari buruzko informazioa:

Lehena. Taldearen finantzabidearen deskribapen orokorra, taldetik kanpoko pertsona edo entitateekin finantzabiderako izenpetutako akordio nagusiak barne.

Bigarrena. Taldearen finantzaketa lan nagusiak betetzen dituzten entitateen identifikazioa, haien eraketa herrialdea eta egiazko zuzendaritza egoitzakoa.

Hirugarrena. Transferentzia prezioen gaian taldeak duen politikaren deskribapen orokorra, taldeko entitateen arteko finantzaketa akordioei dagokienez.

e) Taldearen egoera finantzarioa eta fiskala:

Lehena. Taldearen urteko finantza-egoera orri kontsolidatuak, betiere taldearentzat nahitaezkoak badira edo borondatez egiten badira.

Bigarrena. Baloraziorako alde zuzeneko akordio indardunen zerrenda eta deskribapen laburra, bai eta agintaritza fiskalen batekin hartutako beste edozein erabaki ere, taldearen etekinak herrialdeen artean banatzeari eragiten badio.

2. Artikulu honetan aurreikusitako dokumentazioa ez zaie aplikatuko taldeei haien negozio zifraren zenbateko garbia 45 milioi eurotik beherakoa denean, negozio zifra zergari buruzko foru legearen 12. artikuluan ezarritako moduan definituta.

31. artikulua. Zergadunari buruzko dokumentazioa

1. Zergapeko zergadunari buruzko dokumentazioan honakoak jaso beharko dira:

a) Zergadunari buruzko informazioa

Lehena. Zuzendaritza egitura, organigrama eta

zergadunaren jardueren bilakaerari buruzko txostenen hartzaile diren pertsona edo entitateak, adieraziz halaber pertsona edo entitate horien egoitza fiskala zein herrialde edo lurraldetan dagoen.

Bigarrena. Hauen deskribapena: zergadunaren jarduerak, bere negozio estrategia, eta, kasua bada, zergaldian aktibo ukiezinen berrantolaketa, lagapen edo eskualdaketa eragiketetan izandako parte-hartzea.

Hirugarrena. Lehiatzaile nagusiak.

b) Eragiketa lotuei buruzko informazioa:

Lehena. Eragiketa lotuen izaeraren, ezaugarrien eta zenbatekoaren deskribapen zehatza.

Bigarrena. Zergadunaren eta, eragiketa zer pertsona edo entitate loturekin egiten den, haien izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izen osoa, helbide fiskala eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

Hirugarrena. Alderagarritasun azterketa zehatza, 18. artikuluan deskribatutako moduan

Laugarrena. Baloraziorako metodoaren hautaketari buruzko azalpena, hura aukeratzeko arrazoiaren deskribapena barne, bai eta aplikatzeko modua, lortutako alderagarriak eta hartatik sortutako balioaren edo balio tartearen zehaztapena ere.

Bosgarrena. Kasua bada, gastuak banatzeko irizpideak, zenbait pertsona edo entitate loturen alde batera emandako zerbitzuen kontzeptuan, eta kasuan kasuko akordioak, baleude, eta kostuak banatzeko akordioak, 19. artikuluan aipatzen direnak

Seigarrena. Baloraziorako alde zuzeneko akordio

indardunen kopia, bai eta agintaritza fiskalen batekin hartutako beste edozein erabaki ere, lehen aipatutako eragiketa lotuekin harremana baldin badute.

Zazpigarrena. Zergadunak bere eragiketa lotuen balorazioa ezartzeko eskura izan duen beste edozein informazio garrantzitsu.

c) Zergadunari buruzko informazio ekonomiko eta finantzarioa:

Lehena. Zergadunaren urteko finantza egoera-orriak.

Bigarrena. Transferentzia prezioetarako metodoak aplikatzeko erabilitako datuak eta urteko finantza egoera-orriak bateratzea, dagokionean eta garrantzizkoa denean.

Hirugarrena. Erabilitako alderagarrien finantza datuak eta haien jatorria.

2. Merkatuko balioa zehazteko, baloraziorako beste metodo eta teknika batzuk erabiltzen badira, oro har onartuak baina zergari buruzko legearen 29. artikuluan aipatutakoak ez direnak, esate baterako etorkizunerako kalkulatzeko diren efektibo fluxuak deskontatzeko metodoak, hautatutako metodo edo teknika zehatza zehaztasunez deskribatuko da, bai eta hori hautatzeko arrazoiak ere.

Zehazki, metodo eta teknika horien oinarri diren magnitudeak, portzentajeak, ratioak, interes tasak, eguneratze tasak eta gainerako aldagaiak deskribatuko dira, eta onartutako hipotesien zentzuzkotasuna eta koherentzia justifikatuko dira, datu historikoei, negozio planei edo balioa zuzen ezartzeko eta lehia askearen printzipioarekin bat etortzeko funtsezkotzat jotzen den beste edozein elementuri erreferentzia eginez.

Merkatuari buruzko datu hautemangarrien erabilera ahalik eta handiena izan beharko da (datu frogatuak betiere), eta alderdi subjektiboak eta datu ez hautemangarriak edo alderagarriak, aldiz, ahal den gutxien baliatuko dira.

Zerga administrazioaren esku izan beharreko dokumentazioa txostenek, agiriek eta euskarri informatikoen osatuko dute, balorazio metodoa zuzen aplikatzen dela eta ondoriozko merkatuko balioa egiaztatzeko beharrezkoak direnek.

3. 1. apartatuan dokumentazioari dagokionez aurreikusitako betebeharrak subjektu pasiboak eragiketa lotua egin duen zergaldikoak izanen dira.

Zergaldi baterako prestatutako dokumentazioak hurrengo zergaldi batzuetan ere balio badu, ez da dokumentazio berririk egin beharko, beharrezkoak diren egokitzapenak egitea baztertu gabe.

4. Pertsona edo entitate lotuen negozio zifraren zenbateko garbia, zergari buruzko foru legearen 12. artikuluan ezarritako moduan definituta, 45 milioi eurotik beherakoa baldin bada, dokumentazioak eduki erraztu hau izanen du:

a) Eragiketa lotuen izaeraren, ezaugarrien eta zenbatekoaren deskribapena.

b) Zergadunaren eta, eragiketa zer pertsona edo entitate lotuekin egiten den, horien izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izen osoa, helbide fiskala eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Erabilitako balorazio metodoaren identifikazioa.

d) Lortutako alderagarriak eta erabilitako balorazio metodoak eragindako balioa edo balio tartea.

Zergari buruzko foru legearen 12. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona edo entitateen kasuan, ulertuko da dokumentazio hori bete dela zerga arloetako eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez horretarako egindako agiri normalizatuaren bidez. Entitate horiek ez dituzte aurkeztu beharko d) letran aipatzen diren alderagarriak.

5. Dokumentazioaren eduki erraztua, aurreko apartatuan aipatzen dena, ez da eragiketa hauetan aplikatuko:

a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek jarduera ekonomiko bat gauzatzean egindako eragiketak, jarduera horri zenbatespen objektiboaren araubidea aplikatzen ahal zaionean, zergaduna bera, bere ezkontidea, aurrekoak edo ondorengoak partaide dituen entitate batekin, eta haiek guztiek batera nahiz bakarka sozietatearen kapitalean edo funts berekietan duten portzentajea ehuneko 25 edo handiagoa bada.

b) Negozioak eskualdatzeko eragiketak.

c) Balore-merkatu arauturen batean negoziatzeko onartuak ez diren edo paradisu fiskaltzat hartutako herrialdeetan edo lurraldeetan kokatutako merkatu arautuetan negoziatzeko onartuak diren entitateetako edozeinen funts berekietako partaidetza ordezkatzan duten baloreak edo partaidetzak eskualdatzeko eragiketak.

d) Ondasun higiezinak eskualdatzeko eragiketak.

e) Aktibo ukiezinaren gaineko eragiketak.

Halere, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari

buruzko foru legearen 12. artikuluan aipatzen diren entitateen kasuan, paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetako egoiliarrak diren pertsona edo entitateekin egindako eragiketak ez direnean, dokumentazio betebeharren artean ez da sartuko erregelamendu honen 18. artikuluan aipatzen den alderagarritasun azterketa.

X. kapitulua. Dokumentazio betebeharrak, paradisu fiskaletako egoiliarrak diren pertsona edo entitateekiko eragiketetan.

32. artikulua. Dokumentazio betebeharrak, paradisu fiskaletako egoiliarrak diren pertsona edo entitateekiko eragiketetan

1. Zergari buruzko foru legearen 27.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetako egoiliarrak diren pertsona edo entitateekin eragiketak egiten dituztenek Zerga Administrazioaren eskura mantendu beharko dute erregelamendu honen I. tituluko IX. kapituluan aurreikusitako dokumentazioa, berezitasun hauekin:

a) Zergari buruzko foru legearen 30.3.d) artikuluan ezarritakoa ez da aplikatuko.

b) Paradisu fiskaltzat hartzen den herrialde edo lurralde bateko egoiliarrak diren pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketa guztiei buruzko dokumentazioa mantendu beharko da, non ez diren Europar Batasuneko kide den estatu bateko egoiliar, edo Europako Esparru Ekonomikoko kide diren estatuetakoa, horiekin egiazko informazio trukea baldin badago zerga arloan, estatuko araudian aurreikusitako moduan, eta zergadunak frogatzen badu eragiketak arrazoi ekonomiko baliiodunei erantzunez eginak direla eta pertsona edo entitate horiek jarduera

ekonomikoak egiten dituztela.

c) Paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetako egoiliar diren pertsona edo entitateekin egindako eragiketak direnean, 31.1.a) artikuluan aipatzen den dokumentazioan jasoko da halaber, osagarri gisa, eragiketan pertsona edo entitate horien izenean esku hartu duten pertsonen identifikazioa, eta, entitateekiko eragiketak baldin badira, horien administratzaileen identifikazioa.

d) Paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetako egoiliarak diren pertsona edo entitateekin egindako eragiketei, pertsona edo entitate horiek lotuak ez badira zergari buruzko foru legearen 28. artikuluan ezarritako moduan, ez zaie eskatuko zergadunari buruzko dokumentazioa, erregelamendu honen 31. artikuluan aurreikusitakoa, nazioarteko zerbitzuei eta salgaien salerosketei dagokienez, horietan izandako bitartekaritza batzordeak barne, bai eta gastu osagarri eta lotuak ere, betiere baldintza hauek betetzen badira:

Lehena. Zergadunak frogatzen badu eragiketa paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde baten bitartez egin izana arrazoi ekonomiko baliiodunei zor zaiela.

Bigarrena. Zergadunak paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetako egoiliar ez diren pertsona edo entitate ez lotuekin eragiketa parekagarriak egiten baditu, eta frogatzen badu eragiketaren balio hitzartua eragiketa parekagarri horietako balio hitzartuarekin bat datorrela, beharrezkoak diren zuzenketak egin ondoren, egin behar badira.

XI. kapitulua. Aldez aurreko akordioak, zenbait aktibo ukiezinetatik sortzen diren errenten murrizketa portzentajea ezartzeko eta haiek baloratzeko

33. artikulua. Prozeduraren hasiera

1. Zergari buruzko foru legearen 39. artikuluan jasotako murrizketa izan dezaketen eragiketak egin behar dituzten pertsona edo entitateek aldez aurreko akordioa eskatzen ahalko diote Zerga Administrazioari, artikuluko horren 1. apartatuarekin bat aplikatu dezaketen murrizketa portzentajea ezartzeko, bai eta apartatu horretan aipatzen diren aktiboen lagapenetik heldu diren sarreraren eta haiekin lotutako gastuen baloraziorako ere, eta eskualdaketan sortutako errentena, kasua bada.

2. Eskaera idatziz aurkeztu beharko da, zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzuan, zergari buruzko foru legearen 39. artikuluan jasotako murrizketa aplikatzeko arrazoia diren eragiketak egin aurretik; eskaerari informazio hau erantsiko zaio gutxienez:

a) Pertsona edo entitate eskatzailearen identifikazioa eta pertsona edo entitate lagapen-hartzaileena.

b) Laga edo eskualdatu gogo den aktiboa deskribatzea, eta zergari buruzko foru legearen 39.1 artikuluan jasotako kategorietako batekoa dela frogatzea.

c) Kasua bada, ezarri gogo den erabilera edo ustiapen eskubidearen deskribapena, eta haren iraupena.

d) Eskaera aplikatzekoa den murrizketa portzentajea ezartzeari buruzkoa bada, haren baloraziorako proposamena, zergari buruzko foru legearen 39.1 artikuluan jasotako formularen parte diren elementu guztiak frogatuta.

e) Kasua bada, aktiboaren lagapenarekin lotutako sarreraren eta gastuen balorazio proposamena, edo eskualdatzean sortutako errentena, adieraziz eskurapen balioa eta eskualdaketarena, aplikatutako balorazio metodoa edo irizpidea eta aintzat hartu diren inguruabar ekonomikoak ere aipatuz.

f) Zerga administrazioak iritzia izateko lagungarriak izan daitezkeen gainerako datuak, elementuak eta agiriak.

3. Eskaera tramitera ez onartzeko erabaki arrazoitua hartzen ahalko da, inguruabar hauetako bat tartean dagoenean:

a) Egin gogo den proposamenak oinarririk ez izatea, modu agerikoan, ezartzeko zein den aplikatu beharreko murrizketa portzentajea, aktiboen lagapenetik etorritako sarreraren eta lotutako gastuen balioa, edo eskualdatzean sortutako errentena.

b) Egin nahi den proposamena eta lehenago ezetsi diren beste batzuk funtsean berdinak izatea.

4. Aurkeztutako dokumentazioak kapitulu honetan araututako prozedurari dagokionez baizik ez du ondoriorik izanen, eta hari dagokionez baizik ez da erabiliko.

5. Aurreko apartatuetan aurreikusitakoak ez ditu zergadunak salbuetsiko Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 27.5 artikuluan, edo beste xedapen batean ezarritakoarekin bat dituzten betebeharretatik.

6. Proposamenean atzera egiten bada, hura artxibatu, iraungi bada edo ezesten bada, aurkeztutako dokumentazioa itzuli egingen zaio zergadunari.

34. artikulua. Organo eskuduna eta tramitazioa.

1. Zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzuak izanen du kapitulu honetan aipatzen den prozedura instruitzeko, ebazteko eta, akordioa aldatuz gero, hasteko eskumena.

2. Zerbitzu eskudunak eskaera aztertuko du aurkeztutako dokumentazioarekin batera. Ondorio horietarako, zergadunei proposamenarekin zerikusia duten datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak eskatzen ahalko dizkie noiznahi, bai eta hari buruzko azalpen edo argibide osagarriak ere.

3. Prozedura 6 hilabeteko gehieneko epean amaitu beharko da. Epe hori ebazpen espresik jakinarazi gabe iragaten bada, akordiorako edo aldaketarako proposamena ezetsi egin dela ulertuko da.

35. artikulua. Aldez aurreko akordioaren amaiera eta ondorioak

1. Aldez aurreko prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak ondorioa hauetako bat izan dezake:

a) Zergadunak aurkeztutako proposamena onestea.

b) Hasieran onetsitakoaz bestelakoa den proposamen bat onestea, zergadunaren adostasunarekin.

c) Zergadunak aurkeztutako proposamena ezestea.

2. Aldez aurreko akordioa loteslea izanen da eta agiri batean formalizatuko da, datu hauek ere jasota gutxienez:

a) Formalizazioaren tokia eta eguna.

b) Zergadunaren izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Zergadunaren adostasuna akordioaren edukiarekin.

d) Proposamenak aipatzen duen eragiketaren deskribapena.

f) Aplikatzekoa den murrizketa portzentajea ezartzeko alde zuzeneko akordioa dagoenean, adostutako portzentajea eta, kasu bada, aktiboaren lagapenarekin lotutako sarreraren eta gastuen balorazioa, edo eskualdaketan sortutako errentena, adieraziz erabilitako balorazio metodoaren funtsezko elementuak zein diren, eta, horrekin batera, aplikaziorako oinarritzat jotzeko behar diren inguruabar ekonomikoak.

g) Akordioaren indarraldia eta indarra hartzeko data.

3. Proposamena ezestean, zergadunaren identifikazioarekin batera, Zerga Administrazioak proposamena ezesteko dituen arrazoiak ere jasoko dira.

4. Eskatzaileak atzera egiteak prozeduraren amaiera ekarriko du.

5. Murrizketa portzentajea eta, kasu bada, aktiboaren lagapenarekin lotutako sarreraren eta gastuen balorazioa, edo eskualdaketan sortutako errentena, bere indarraldian aplikatu beharko du Zerga Administrazioak eta zergadunak, betiere baloraziorako oinarri gisa baliatutako inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatzen ez badira.

6. Zerga Administrazioak egiaztatzen ahalko du proposamenean deskribatutako egitateak eta eragiketak bat datozeela benetan egindakoekin eta proposamena behar bezala aplikatu dela. Egiaztapenaren ondorioa baldin bada onetsitako proposamenean deskribatutako egitateak eta eragiketak ez datozeela bat errealitatearekin, edo

proposamena ez dela behar bezala aplikatu, Zerga Administrazioak zergadunen zerga egoera erregularizatuko du.

7. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren edo ezespeneko presuntziozko egintzaren kontra ezin izanen da errekurtsorik aurkeztu, baina horrek ez du galaraziko errekurtsuak eta erreklamazioak aurkeztea aurrerago likidazio egintzen kontra.

36. artikulua. Aldez aurreko akordioaren aldaketa

1. Aldez aurreko akordioa onetsi zenean aintzat hartutako inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatuz gero, akordioa inguruabar ekonomiko berrietara egokitzeko aldatzen ahalko da. Aldaketarako prozedura ofizioz has daiteke, edo zergadunek eskaturik.

2. Aldatzeko eskaera pertsona edo entitate eskatzaileak izenpetu beharko du, eta informazio hau jaso beharko da bertan:

a) Inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatu direla justifikatzea.

b) Aldaketa hori dela-eta bidezkoa den balorazioaren moldaketa.

Eskatzaileak atzera egiteak prozeduraren amaiera ekarriko du.

Zerga Administrazioak zergadunei proposamenarekin zerikusia duten datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak eskatzen ahalko dizkie, bai eta hari buruzko azalpen edo argibide osagarriak ere.

Zerga Administrazioak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta zergadunari hamabost eguneko epea utzita entzutea emateko, ebazpen arrazoitua emanen du, eta haren ondorioa hauetako bat izanen da:

Lehena. Zergadunek egindako aldaketa onestea.

Bigarrena. Hasieran onetsitakoaz bestelakoa den aldaketa proposamen bat onestea, zergadunaren adostasunarekin.

Hirugarrena. Zergadunak aurkeztutako aldaketa ezestea, hasiera batean onetsitako proposamena berretsiz edo ondoriorik gabe utziz.

3. Aldaketarako prozedura Zerga Administrazioak hasitakoa denean, proposamenaren edukia zergadunari jakinaraziko zaio, eta hilabeteko epea izanen du, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita, hau egiteko:

a) Aldaketa onartu.

b) Aldaketa alternatibo bat aurkeztu, behar bezala justifikatuta.

c) Aldaketari uko egin, horretarako arrazoiak adieraziz.

Zerga Administrazioak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ebazpen arrazoitua emanen du, eta ondorio hauetako bat izanen du:

Lehena. Aldaketa onestea, zergadunak onartu badu.

Bigarrena. Zergadunek egindako aldaketa alternatiboa onestea.

Hirugarrena. Hasierako proposamena onesteko hartutako erabakia ondoriorik gabe uztea.

Laugarrena. Hasierako proposamenaren aplikazioaren jarraipena deklaratzeari.

4. Espedientea 6 hilabeteko epean amaitu beharko da. Epe hori ebatzen espresik jakinarazi gabe iragaten bada, aldaketarako proposamena ezetsi egin dela ulertuko da.

5. Aldatzeko prozedurari amaiera ematen dion ebatzenaren kontra ezin izanen da errekurtsorik aurkeztu, baina horrek ez du galaraziko errekurtsioak eta erreklamazioak aurkeztea aurrerago likidazio egintzen kontra.

6. Aldaketa onesteak erregelamendu honen 35. artikuluan aipatutako ondorioak izanen ditu, aldaketarako eskaera aurkezten denetik edo aldaketa proposamena jakinarazten denetik.

7. Baloraziorako alde aurreko akordioa, hasierakoa, ondoriorik gabe uzten duen ebatzenak 35. artikuluan aurreikusitako ondorioak iraungitzea ekarriko du, aldaketarako eskaera aurkezten denetik edo aldaketa proposamena jakinarazten denetik.

8. Zergadunek egindako aldaketa ezesteak ondorio hauek izanen ditu:

a) 35. artikuluan aurreikusitako ondorioak berrestea, inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatu direla frogatzen ez denean.

b) 35. artikuluan aurreikusitako ondorioak iraungitzea, ezespentetik aurrera.

37. artikulua. Aldez aurreko akordioaren luzapena

1. Murrizketaren portzentajea eta, kasua bada, balorazioarena ezartzeko aldez aurreko akordioaren balio epea luzatzeko eskatzen ahalko dio zergadunak Zerga Administrazioari. Aipatutako eskaera balio epea amaitu aurreko sei hileko epean aurkeztu beharko da, eta harekin batera dokumentazioa, jatorrizko eskaeran jasotako inguruabarrak ez direla aldatu frogatzeko, zergadunei komenigarri iruditzen zaien guztia.

2. Zerga Administrazioak sei hileko epea izanen du 1. apartatuan aipatzen den dokumentazioa aztertzeko eta zergadunei jakinarazteko baloraziorako aldez aurreko akordioaren balio epea luzatzen den edo ez. Ondorio horietarako, Administrazioak edozein informazio eta dokumentazio osagarri eskatzen ahalko du, bai eta zergadunaren laguntza ere.

3. Aurreko 2. apartatuan aipatzen den epea iragaten bada akordioaren balio epearen luzapena jakinarazi gabe, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

4. Luzapena erabaki edo ukatzen duen ebazpenaren edo ezespeneko presuntziosko egintzaren kontra ezin izanen da errekurtsorik aurkeztu, baina horrek ez du galaraziko errekurtsioak eta erreklamazioak aurkeztea aurreragoko likidazio egintzen kontra.

II. TITULUA ZENBAIT JARDUERA BULTZATZEKO PIZGARRI DIREN KENKARIAK

38. artikulua. Kenkaria, ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik

1. Zergari buruzko foru legearen 61.6 artikuluan ezarritakoarekin arabera, ikerketa, garapen eta berrikuntza

teknologikoko jarduerak egiteagatiko murrizketa egitea nahi duten subjektu pasiboek banakako proiektuak aurkeztu beharko dituzte, haien azalpen memoriak erantsita.

Zergadunak berrikuntza eta teknologia arloko organo eskudunari igorriko dio aipatutako dokumentazioa, txostena eman dezan, jarduera horiek murrizketa aplikatzeko betebeharrak eta baldintzak betetzen ote dituzten jakiteko. Murrizketa eskatzen den zergaldian eta hurrengoetan egiten diren gastuen kalifikazioa egingen du txostenak, bai eta aurreko bi zergaldietan egindakoena ere.

Eskaera eredia eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren edukia azaroaren 20ko 360/2000 Foru Dekretuaren 8.1 artikuluan xedatutakoak izanen dira. Dekretu horrek ikerkuntza eta garapenari eta berrikuntzari laguntzak emateko araubidea onesten du.

2.a) Zergari buruzko foru legearen 61.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko gastuek kenkari horren oinarria osa dezakete, betiere:

Lehena) Kontabilitateko arauarekin bat, zergaldian egindako gastuak badira, behin betiko kontabilizazioa gastuarena izan edo geroago ibilgetu ukiezin gisa aktibatu.

Bigarrena) Gastu horiek lotura zuzena badute ikerketa eta garapeneko jarduerekin edo berrikuntza teknologikokoekin, eta jarduera horiek gauzatzean benetan aplikatzen badira.

Hirugarrena) Berariaz proiektuen arabera banaka jasotako gastuak badira.

b) Ikerketa eta garapeneko jardueran sortzen diren prototipoen kasuan, produkziarako jardueran merkaturatzen

edo erabiltzen badira, haien kostua ez da ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko gastuen parte izanen.

c) Ondoko gastuak ez dira kenkariaren oinarriaren parte izanen, nahiz eta ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerekin lotura izan:

Lehena) Langileen prestakuntzarako eta trebakuntzarako gastuak.

Bigarrena) Proiektuaren dokumentazioari dagozkion gastuak.

Hirugarrena) Aholkularitza eta ziurtapen gastuak, proiektuaren kudeaketari eta ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko egiteagatik onura fiskalak eta diru-laguntzak tramitatzeari lotutakoak.

Laugarrena) Administrazio gastuak eta bulegoko materialarenak.

Bosgarrena) Bidaia gastuak, dietak eta kilometrajea, ostatuarena eta joan-etorriena, non ez den frogatzen lotura zuzena, hurrena eta beharrezkoa dutela ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko proiektuarekin.

Seigarrena) Patenteak, markak edo industriaren jabetzaren beste modalitate batzuk inskribatzeko eskaerarekin lotura duten gastuak.

3. Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoa atxikia duen departamentuko arduradunaren foru agindu bidez garatuko dira kenkari hau interpretatzeko irizpideak.

39. artikulua. Ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea

1. Zergari buruzko foru legearen 62. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, zergadunak ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektu batean parte hartzen duela ulertuko da beste zergadun batek garatutako proiektu baten kostuak edo horien zati bat ordaintzeko diru-ekarpenak egiten dituzenean, mailegu gisa.

2. Ekarpen horiek kenkarien bidez itzuliko zaizkio zergadunari, hain zuzen ere kontratuan eta zergari buruzko foru legearen 62. artikuluan ezarritakoari jarraikiz finantzaketan parte hartzen duen zergadunari dagozkion kenkarien bidez.

Ez da onartuko finantzaketan parte hartzen duen zergadunaren tokian subrogatzea titulu unibertsaleko ondorengotzaren kasuetan.

3. Finantzaketan parte hartzen duen zergadunak zergari buruzko foru legearen 62. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatuko du urtero, kontuan hartuta zergaldi bakoitzean ordaindutako ekarpenak eta zergari buruzko foru legearen 61. artikuluko kenkaria, proiektua egiten duen zergadunak zergaldi bakoitzean frogatzen duena.

Halere, zergari buruzko foru legearen 62. artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak zergaldian egindako diru-ekarpenek aukera emanaz gero proiektua garatzen duen zergadunak frogatutakoa baino kenkari handiagoa egiteko, soberakina hurrengo zergaldietan aplikatzen ahalko da aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraikiz.

40. artikulua. Kenkaria, produkzio zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatik: ikus-entzunezko lan zailaren izaera

Zergari buruzko foru legearen 65.3 artikuluan

ezarritakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira ikus-entzunezko lan zailtzat:

- a) Film laburrak.
- b) Zuzendari baten lehen edo bigarren lana.
- c) Jatorrizko bertsoia euskaraz bakarrik duten lanak.
- d) Aurrekontu txikiko lanak, alegia, produkzio kostua 500.000 eurotik beherakoa dutenak.
- e) Gaia dela-eta edo produkzioari datxezkion beste arrazoi batzuegatik merkaturatu sartzeko zailtasunak dituztenak.

Zergadunak sozietateen gaineko zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzuari eskatu beharko dio lan zailaren kalifikazioa emateko, zergadunak kenkarirako eskubidea frogatzen duen lehen zergaldia amaitu aurretik, eta, horretarako, obrak merkaturatu sartzeko dauzkan zailtasunak frogatzeko beharrezkoa den informazioa aurkeztu beharko du.

III. TITULUA. ATXIKIPENA ETA KONTURAKO DIRU-SARRERA EGITEKO BETEBEHARRA

I. kapitulua. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra

41. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren menpe dauden errentak

1. Jasotzaileari dagokion sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketaren kontzeptuan, atxikipena egin beharko da hauengatik:

- a) Edozein entitate motaren funts berekietan parte hartzeak, hirugarrenei norberaren kapitalak lagatzeak eta

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Legearen 27. artikuluan jasotako gainerakoek dakartzaten errentak.

b) Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartzeak dakartzan sariak, ondasun, produktu edo zerbitzu batzuen eskaintza, sustapen edo salmentarekin loturik egon edo ez.

c) Beste sozietate batzuetan administratzaile edo kontseilukide karguak ematearen ondorioz lortutako kontraprestazioak.

d) Irudia ustiatzeko eskubidea lagatzetik edo haren erabilera onartu edo baimentzetik datozen errentak, ustiapen ekonomikoetatik datozen sarrerak badira ere.

e) Ondasun higiezin errentamendutik edo azpierrementamendutik datozen errentak, ustiapen ekonomikoetatik datozen sarrerak badira ere.

f) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketen ondorioz lortutako errentak.

g) Kapitala murriztu eta ekarpenak itzultzearen ondorioz eta jaulkipen prima banatzearen ondorioz lortutako errentak, honako hauek eginak: kapital aldakorreko inbertsio sozietateak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko Legean araututakoak eta karga tasa orokorraren menpe ez daudenak; beste estatu batean erregistratuta dauden kapital aldakorreko sozietateen parekide diren inbertsio kolektiboko erakundeak, akzioak eskuratzeko, lagatzeko edo erreskatatzeko dituzten mugak, inbertsio talde murriztuekikoak, gorabehera; eta ondasun higigarrien baloreetako inbertsio kolektiboko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dituen

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauaren babeseko sozietateak.

2. Kontratu bakar batean zerbitzuak ematea edo ondasun higiezinaren lagapena biltzen direnean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 30.3 artikuluan jasotako ondasun eta eskubideen lagapenarekin batera, atxikipena zenbateko osoaren gainean egin beharko da.

3. Hartzaileari dagokion sozietateen gaineko zergaren konturako diru-sarrera egin beharko da aurreko apartatuetakoa errentekiko, gauzen bidez ordaindu edo abonatzen direnean.

4. Erregelamendu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, atxikitzalea aipatzen denean konturako sarrerak egitera behartutakoa ere badela ulertuko da.

42. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrerak egiteko betebeharraren salbuespenak

Ez da atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharririk izanen hauei dagokienez:

1. Espainiako Bankuak jaulkitako baloreek, diru merkaturan esku-hartzea arautzeko bitartekoa direnek, emandako etekinak, eta Altxorraren Letren etekinak.

Halere, bezeroekin Altxorraren Letren gaineko eragiketetan oinarri duten kontu kontratuak formalizatzen dituzten kreditu entitateek eta gainerako finantza erakundeek atxikipena egin beharko dute kontu horien titularrek lortutako etekinekiko.

2. Altxorraren aldeko eskubidea diren interesak, Estatuak kreditu ofizialari emandako maileguen kontraprestazio gisa.

3. Espainiako Bankuko erregistro berezietan inskribatutako kreditu entitateen eta Espainiako lurraldeko egoiliarrak diren kredituko finantza establezimenduen sarrera diren interesak eta mailegu komisioak, bai eta finantza sozietateenak ere, haien kapital gehiena Foru Komunitateko Administrazioarena denean.

Aurreko salbuespena ez zaie aplikatuko entitate publikoek edo pribatuek, nazionalek edo atzerrikoek, jaulkitako obligazioen, bonoen edo beste titulu batzuen interes eta etekinei, entitate horien balore-zorroaren parte direnean.

4. Industriako Partaidetzen Estatuko Sozietateak beste sozietate batzuekin, horien kapital gehiena berea denean, egindako mailegu, kreditu edo aurrerakin eragiketek, aktiboek nahiz pasiboek, emandako interesak, baina ez zedulen, obligazioen, bonoen edo antzeko beste titulu batzuen interesen kasuan.

5. Balore sozietateek jasotako interesak, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Balore Merkatuari buruzko Legearen Testu Bategineko 141.b) artikuluan aipatzen den balore erosketa edo salmenta eragiketei dagokionez emandako kredituen ondorioz; eta inbertsio zerbitzuen enpresek jasotako interesak, Inbertsio zerbitzuen enpresen eta inbertsio zerbitzuak ematen dituzten gainerako entitateen araubide juridikoari buruzko otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretuaren 49.2 artikuluan aipatzen diren mailegu edo gordailuen eragiketa aktiboek dagokienez.

Ez da atxikipenik egin beharrik, halaber, Balore Sozietatek edo Agentziek, eperako eta finantza aukeretako merkatuetako kide gisa aritzeko eraturako bermeen kontraprestazio gisa jasotako interesei dagokionez, eperako eta aukeretako bigarren mailako merkatu ofizialak eta beste finantza tresna eratorriak arautzen dituen urriaren 15eko 1282/2010 Errege Dekretuaren IV. eta V. kapituluetan aipatzen den moduan.

6. Obligazioak akzio bihurtzearen primak.

7. 41.1.g) artikuluan aipatzen direnak ez beste entitate batzuek akzioen edo partaidetzen jaulkipen primak banatuta sortzen diren errentak.

8. Espainiako egoiliarra den sozietate nagusi batek Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetako egoiliarrak diren sozietate filialetatik jasotzen dituen etekinak, 43.2 artikuluan aurreikusitako atxikipenari dagokionez, araubide erkideko legeetan ondorio horietarako ezarritako baldintzak betetzen direnean.

9. Espainiako nahiz Europako interes ekonomikoko talde baten eta bere bazkideen artean eskatu beharreko mozkinak, bai eta aldi baterako batasun baten eta bere kide diren enpresen artean eskatu beharrekoak.

10. Hipoteketako partaidetzen, maileguen edo beste kreditu eskubide batzuetako etekinak, titulizazio funtsen sarrera direnean.

11. Espainiaz kanpoko kontuen mozkinak, Espainiako egoiliarrak diren kreditu entitateek eta finantza establezimenduek atzerrian dituzten establezimendu iraunkorrek ordaindu edo abonaturakoak.

12. Kontsolidaziorako zerga araubidean zergak ordaintzen dituen talde bat osatzen duten sozietateen artean ordainduriko dibidenduak edo etekin, interes eta gainerako mozkinetako partaidetzak.

13. Espainiako nahiz Europako interes ekonomikoko taldeek, eta aldi baterako enpresa elkarteek, salbu eta zergaren gaineko arau orokorren arabera tributatu behar dutenek, banatutako dibidenduak edo etekin-partaidetzak, zerga-oinarriaren egozpena jasan behar duten bazkideei dagozkienak, banatzen dituen entitateak zergari buruzko foru legearen VIII. tituluko III. kapituluko araubide bereziari jarraikiz tributatu duen zergaldietan sortuak badira.

14. Zergari buruzko foru legearen 13.1 artikuluan aipatzen diren entitate salbuetsiek eskuratutako errentetan.

Entitate salbuetsiaren izaera zuzenbidez onartutako edozein frogabide erabiliz frogatzen ahalko da.

15. Dibidenduak edo zergari buruzko foru legearen 35.1 artikuluan aipatzen diren etekinetako partaidetzak.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, entitate jasotzaileak jakinarazi beharko dio atxikipena egitera behartuta dagoen entitateari artikuluko horretan ezarritako baldintzak betetzen direla. Jakinarazpenari, jasotzailea identifikatzeko datuez gain, baldintza horiek betetzen direla frogatzen duten agiriak ere erantsiko zaizkio.

16. Ondasun higiezin errentamendutik eta azpierrementamendutik datozen etekinak, kasu hauetan:

a) Enpresek enplegatuentzat errentan hartutako etxebizitzak direnean.

b) Zergari buruzko foru legearen 19. artikuluan aipatzen den finantza errentamenduko kontratuetatik datozen etekinak, errentamenduaren xedea ondasun higiezinak direnean.

17. Sozietateen gaineko zergaren zergadunek lortutako errentak, finantza aktiboetatik datozenak, baldin eta aktibo horiek baldintza hauek betetzen badituzte:

Lehena. Kontuko idatzoharren bidez ordezkatuak izatea.

Bigarrena. Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofizial batean negoziatuak izatea, edo Errenta Finkoko Merkatu Alternatiboan, Balore Merkatuei buruzko Legearen Testu Bateginaren X. tituluan aurreikusitakoaren arabera sortutako negoziazio sistema multilateralean alegia.

Halere, bezeroekin finantza aktiboen gaineko eragiketetan oinarri duten kontu kontratuak formalizatzen dituzten kreditu entitateek eta gainerako finantza erakundeek atxikipena egin beharko dute kontu horien titularrek lortutako etekinei dagokienez.

Apartatu honetan jasotako baloreen interesak ordaintzeko erabiltzen diren edo horien eskualdaketan, amortizazioan edo itzulketan esku hartzen duten finantza entitateak beharturik egonen dira balorearen titularrari egotzi beharreko etekina kalkulatzera eta horren berri ematera titularrari eta Zerga Administrazioari; lehen aipatutako eragiketetan esku hartzen duten pertsonei buruzko datuak ere emanen dizkiote Zerga Administrazioari.

Tributu arloko eskumena duen departamentuko titularrak ezarriko ditu bitartekaritza eta informazio betebeharrak

ere, Zor Publikoko baloreen banaketei, eskualdaketei, berreraketei, itzulketei eta amortizazioei dagozkienak, zor balore horien negoziazioa printzipaletik eta kupoietatik bereizirik egitea baimendu den kasuan. Kasu horietan, Zor Publiko Anotatuaren Merkatua kudeatzen duten entitateak beharturik egonen dira titular bakoitzari egotzi beharreko etekina kalkulatzera eta horren berri ematera titularrari eta Zerga Administrazioari; balore horien gaineko eragiketetan esku hartzen duten pertsonen buruzko informazioa ere emanen diote Zerga Administrazioari.

18. 41.1.b) artikuluan aipatzen diren sariak, haien atxikipen oinarria 300 eurotik gorakoa ez denean, eta loteria eta apustueta sariak, haien zenbatekoa dela-eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen den karga berezitik salbuetsirik daudenak.

19. Sozietateen gaineko zergaren zergadunek lortutako errentak, ELGako herrialdeetako administrazio publikoek jaulkitako zorretik eta herrialde horietako merkatu antolatuetan negoziatutako finantza aktiboetatik datozenak.

Halere, bezeroekin aurreko paragrafoan aipatzen diren finantza aktiboen gaineko eragiketetan oinarri duten kontu kontratuak formalizatzen dituzten kreditu entitateek eta gainerako finantza entitateek atxikipena egin beharko dute kontu horien titularrek lortutako etekinei dagokienez.

Apartatu honetan jasotako baloreen interesak ordaintzeko erabiltzen diren edo horien eskualdaketan, amortizazioan edo itzulketan esku hartzen duten finantza entitateak beharturik egonen dira balorearen titularrari egotzi beharreko etekina kalkulatzera eta horren berri ematera titularrari eta Zerga Administrazioari; lehen

aipatutako eragiketetan esku hartzen duten pertsonei buruzko datuak ere emanen dizkiote Zerga Administrazioari.

Tributu arloko eskumena duen departamentuko titularrari ahalmena ematen zaio artikulu honetan araututako atxikipen salbuespena gauzatzeko prozedura ezartzeko.

20. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketetatik datozen errentak, bide hauetatik lortutakoak:

Lehena. Finantza izaerako inbertsio funtsak eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututakoak, baldin eta haien kudeaketa erregelamenduan edo estatutuetan ezarria badute beren ondarearen erditik gorako gutxieneko inbertsioa eginen dutela 35/2003 Legea garatzeko Erregelamenduaren 48.1 artikuluan, c) eta d) letretan, batean zein bestean, aurreikusitako inbertsio kolektiboko zenbait erakunderen akzio edo partaidetzetan.

Bigarrena. Finantza izaerako inbertsio funtsak eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateak, 35/2003 Legean araututakoak, baldin eta haien kudeaketa erregelamenduan edo estatutuetan ezarria badute beren ondarearen 100eko 80ko inbertsioa egitea, gutxienez, 35/2003 Legea garatzeko Erregelamenduaren 3.3 artikuluan, lehen tartean araututako finantza izaerako inbertsio funtsetako bakar batean. Inbertsio politika hori funtsaren edo inbertsio sozietatearen konpartimentu bati dagokionean, letra honetan aurreikusitako atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharraren salbuespena aplikatu da, soilik, erakundearen ondaretik konpartimentu horri esleitutako zatia osatzen duten inbertsioetan.

Apartatu honetan aurreikusitako atxikipenaren salbuespena aplikatzeko, beharrezkoa izanen da inbertsio erakundea sartuta egotea Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalak apartatu honen lehen eta bigarren ataletan aipatzen diren inbertsio motetarako ezarria duen kategorian; kategoria horrek jasota egon beharko du informazio esku-orrian.

21. Aseguru entitateek pentsio funtsei ordaindutako zenbatekoak pentsio planen gaineko aseguruak egitearen ondorioz.

22. Aktibo trukaketaren ondorioz lortutako errentak, aktibo horietan inbertituta baldin badaude bizi-aseguruen hornidurak, zeinetan aseguru-hartzaileak inbertsioaren arriskua bere gain hartzen baitu.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, aseguru entitateek atxikipena egitera beharturik dauden entitateei inguruabar hori jakinarazi beharko diete, aktiboen eskualdaketa edo itzulketa gertatzen denean, hau da, aseguru kontratu horretan aseguru-hartzaileak bere gain hartzen duela inbertsioaren arriskua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 78.9 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen direla. Atxikipena egin behar duen entitateak jakinarazpena gorde beharko du, behar bezala sinaturik.

23. Aseguru entitateek likidazio lanak egitetik eta horien gaineko konkurtso prozesuetatik datozen errentak, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak lortutakoak, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Lege Estatutuaren testu bateginean, urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoan, 24.1 artikuluko hirugarren paragrafoan xedatutakoaz baliatuz.

24. Finantzaketa plan baten xede izan den aseguru kolektiboko kontratu batean xedatu diren pentsio konpromisoen aldaketaren ondorioz enpresa hartzaileetan ageri den errenta, baldin eta plan hori osotara bete ez bada, Enpresek langile eta onuradunekin hartutako pentsio konpromisoak xedatzeari buruzko Erregelamenduaren 36.5 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat. Erregelamendua urriaren 15eko 1588/1999 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen

25. 35/2003 Legea garatzeko Erregelamenduaren 79. artikuluan araututako funts eta sozietateetako partaidetzen edo akzioen errenboltsotik edo eskualdaketatik datozen errentak.

26. Baloreak kontuko idazpenen bidez adierazteari eta burtsako eragiketak konpentsatzeari eta likidatzeari buruzko otsailaren 14ko 116/1992 Errege Dekretuaren 57. artikuluan ezarritakoa betetzeko egindako baloreen maileguengatik Baloreak Erregistratu, Konpentsatu eta Likidatzeko Sistemen Kudeaketarako Sozietateak jasotzen dituen eskubide ekonomikoengatiko ordainsariak eta konpentsazioak.

Era berean, aurreko paragrafoan aipatutako entitatea ez da beharturik egonen aipatutako 57. artikuluan aurreikusitakoa betez hartutako baloreen maileguen ondoriozko ordainsari eta konpentsazioengatik (mailegua hartzen duten entitate edo pertsonen ordaintzen dizkienak) atxikipena egiteko. Hori dena, galarazi gabe errenta horiei dagokien atxikipena egin beharra, mailegu-hartzaileari dagokion zerga pertsonala arautzen duen araudiarekin bat. Dagokionean, hari egin beharreko ordainketan parte hartzen duen entitateak gauzatu beharko du atxikipen hori, eta,

hartarako, ez da ulertuko ordainketan bitartekotza hutsa egiten duenik.

43. artikulua. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra duten subjektuak

1. Hitzarmen Ekonomikoan ezarritako irizpideekin bat, atxikipena egitera eta Foru Komunitateko Diruzaintzan sarrera egitera behartuta egonen dira honakoek, 41. artikuluan aurreikusitako errentak ordaindu edo abonatzen badituzte:

a) Pertsona juridikoak eta gainerako entitateak, ondasun eta jabe erkidegoak eta errentak eratzikitzeko araubideko entitateak barne.

b) Banakako enpresaburuak eta profesionalak, beren enpresa- edo lanbide-jardueretan ari direla errentak ordaindu edo abonatzen badituzte.

c) Espainiako egoiliar ez diren pertsona fisiko, juridiko eta gainerako entitateak ere, bertan establezimendu iraunkor baten bidez ari badira.

2. Pertsona edo entitate batek ordainketaren bitartekotza hutsa egiten duenean ez da ulertuko errenta bat ordaindu edo abonatzen duenik, hau da, zenbateko bat hirugarren baten kontura eta hark aginduta abonatzen duenean, salbu eta Espainiako lurraldeko egoiliarren jabetzako atzerriko baloreen gordailu-entitateak direnean edo balore horien errenten kobrantzaren kudeaketa beren gain dutenean. Gordailu-entitate horiek kasuan kasuko atxikipena egin beharko dute, betiere errenta horiek ez badute aldeztu aurretik atxikipena jasan Espainian.

3. Sarien kasuan, saria ordaintzen duen pertsona edo entitatea egonen da atxikipena edo konturako sarrera egitera behartuta.

4. Finantza aktiboen gaineko eragiketetan, hauek egonen dira atxikipena egitera behartuta:

a) Finantza aktiboen amortizazioan edo itzulketan lortutako etekinetan, pertsona edo entitate jaulkitzailea. Halere, eragiketa horiek gauzatzea finantza entitate baten esku uzten bada, eragiketaz arduratzen den finantza entitateak egin beharko du atxikipena.

Jaulkipena egin ondotik finantza aktibo bihurtu diren igorpen tresnak direnean, mugaegunera iristen direnean atxikipena egin beharko du kobrantzara aurkezten esku hartzen duen fede-emaileak edo finantza erakundeak.

b) Etekinak finantza aktiboak eskualdatuz lortzen direnean, aurreko letran aipatzen diren igorpen tresnak barne, eskualdaketa finantza-erakunde baten edo batzuen bitartez bideratzen denean, eskualdatzailearen izenean diharduen banketxe, aurrezki kutxa edo finantza entitatea izanen da.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ulertuko da eskualdatzailearen izenean diharduela finantza aktiboak saltzeko agindua eskualdatzailearengandik jasotzen duen banketxe, aurrezki kutxa edo finantza entitatea.

c) Aurreko letretan jaso ez diren kasuetan, eragiketan nahitaez esku hartu behar duen fede-emaile publikoa.

5. Zor Publikoko baloreen eskualdaketetan, Zor Publiko Anotatuaren Merkatua kudeatzen duen entitateak, eskualdaketan esku hartzen duenak, egin beharko du atxikipena.

6. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzio edo partaidetzen eskualdaketatik edo itzulketetatik, pertsona edo entitate hauek egin beharko dute atxikipena edo konturako sarrera:

a). Inbertsio funtsetako partaidetzak itzultzen direnean, sozietate kudeatzaileak, salbu eta partaideen kontura entitate merkaturatzaileen izenean erregistratutako partaidetzak, horien kasuan entitate merkaturatzaile horiek egin beharko baitute atxikipena edo konturako sarrera.

b). Kapital aldakorreko inbertsio sozietate batek berrerosten baditu akzioak, haren akzioek ez badute burtsan edo baloreen negoziatorako beste inongo merkatu edo sistema antolatutan kotizatzen, eta akzioak zergadunak sozietateari erosten badizkio, zuzenean edo merkaturatzaile baten bidez, sozietateak berak egingen du, salbu eta sozietate kudeatzaile batek esku hartzen badu, kasu horretan, azken honek egin beharko baitu.

c) Helbidea atzerrian duten inbertsio kolektiboko erakundeen kasuan, entitate merkaturatzaileak, edo haien akzioak edo partaidetzak merkaturatzeko ahalmena duten bitartekariak, eta subsidiarioki, baloreak balizko harpidedunen artean kokatu edo banatzeaz arduratzen diren entitatea edo entitateak, errenten itzulketa egitean.

d). Zerbitzu emate libreko araubidean aritzen diren kudeatzaileen kasuan, 35/2003 Legearen 55.7 artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian aipatzen den ordezkaria.

e). Aurreko apartatuetan ezarritakoaren arabera atxikipenik egin behar ez den kasuetan, eskualdaketa egin edo itzulketa lortzen duen bazkide edo partaidea konturako ordainketa bat egin beharko du. Konturako ordainketa hori

45.4. artikuluan, lehen paragrafoan, eta 46.3 eta 47. Lehena artikuluetan jasotako arauari jarraituz egingen da.

7. Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko Legean araututako kapital aldakorreko inbertsio sozietateek, karga tasa orokorraren menpe ez daudenek, kapitala murrizten badute ekarpenak itzultzeko, edo jaulkipen primak banatzen badituzte, atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar dute.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauak (ondasun higigarrien baloreetako inbertsio kolektiboko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dituenak) araututako inbertsio kolektiboko erakunde batek egin badu, hain zuzen ere Europar Batasuneko estatu batean eratu eta bertan helbide duen eta, Espainiako egoiliar diren entitateek merkaturatzeko asmoarekin, Baloreen Merkatuaren Nazio Batzordearen erregistro berezian inskribatuta dagoen batek, errentak ordaintzen dituzten entitate merkaturatzaileek edo akzioak zein partaidetzak merkaturatzerako ahalmena duten bitartekariak egin behar dute atxikipena edo konturako ordainketa, eta, subsidiarioki, baloreak kokatzen edo banatzen dituzten entitateak edo entitateek.

Eragiketa beste estatu batean erregistratuta dagoen kapital aldakorreko inbertsioko sozietateen pareko inbertsio kolektiboko erakunde batek egin badu, inbertsio talde murriztuak direla-eta akzioak eskuratzeko, lagatzeko edo erreskatatzeko dituzten mugak gorabehera, baloreen gordailuzain den erakundeak edo haien ondoriozko errenten kobrantza kudeatzen duenak egin beharko du atxikipena edo konturako sarrera.

Aurreko paragrafoen arabera konturako sarrera edo atxikipena egitea bidezkoa ez den kasuetan, konturako ordainketa egitera behartuta egonen da jaulkipen primaren banaketa edo ekarpenen itzulketa jasotzen duen bazkidea edo partaidea. Konturako ordainketa hori 45.8., 46.1 eta 47. artikuluetan jasotako arauari jarraituz egingen da.

8. Europako Esparru Ekonomikoko kide den beste estatu batean helbidea duten eta Espainian zerbitzu-emate libreko araubidean diharduten aseguru entitateek atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dute Espainian egindako eragiketei dagokienez.

9. Atxikipena egin beharra duten subjektuek beren gain hartuko dute sarrera Nafarroako Ogasunean egiteko betebeharra; betebeharrak hura ez betetzeak ez ditu betebeharrak honetatik salbuesten.

44. artikulua. Finantza aktiboen kalifikazioa eta haien eskualdaketarako, itzulketarako eta amortizaziorako zerga betebeharrak

1. Finantza aktiboak etekin inplizitukoak izanen dira, etekin hori sortzen bada jaulkipenean, lehen aldiz jartzean edo endosatzean ordaindutako zenbatekoaren eta eragiketen mugaegunean itzuli beharrekoaren arteko kenduraren bidez, eragiketen etekina modu inplizituan finkatzen denean, osorik edo zati batean, besteren baliabideak hartzeko erabilitako ondasun higigarrien edozein balore motaren bitartez.

Etekin inplizituen artean sartu dira jaulkipen, amortizazio edo itzulketa primak.

Etekin inplizituaren kontzeptutik kanpo daude jartze hobariak edo primak, jaulkipen prezioaren gainean libratutakoak, baldin eta merkatuko jardunbideetan sartuta

badaude eta erregelamendu honetan araututako finantza aktiboen jaulkipenean eta zirkulazioan jartzean jarduten duen artekariarentzat, bitartekariarentzat edo finantza jartzailearentzat osotara sarrera badira

Etekin inplizituko finantza aktibotzat hartuko da igorpen tresna oro, merkataritzako eragiketetan sortutakoak barne, endosatu edo eskualdatzen den unetik aurrera, salbu eta endosatzea edo lagatzea hornitzaileen kreditu baten ordainketa gisa egiten bada.

2. Etekin esplizituko finantza aktibotzat hartuko dira interesak eta ordainsaria emateko beste edozein bide sortzen dutenak, bide horiek adostuak direnean hirugarrenei kapital berekiak lagatzearen kontraprestazio gisa, eta sartuta ez badaude etekin inplizituen kontzeptuan 1. apartatuan ezartzen den moduan.

3. Etekin mistoko finantza aktiboek etekin esplizituko finantza aktiboen araubidea mantenduko dute urtean izaera horrekin sortzen duten efektiboa jaulkipenaren unean indarra duen erreferentziako tasa adinakoa edo handiagoa bada, jaulkipen, amortizazio edo itzulketaren baldintzetan, modu inplizituan, beste etekin gehigarri bat finkatu bada ere. Hiruhileko natural bakoitzean, erreferentzia tasa hori izanen da hiru urteko Estatuko bonoek aurreko hiruhilekoko azken enkantean izandako batez besteko prezio ponderatu biribilduari dagokion tasa efektiboaren 100eko 80, lau urteko edo gutxiagoko epea duten finantza aktiboak direnean; bost urteko Estatuko bonoena, lau urtetik gorako eta zazpi urteko edo hortik beherako epea duten finantza aktiboak direnean, eta hamar, hamabost edo hogeita hamar urteko Estatuko obligazioena, epe luzeagoko aktiboak direnean. Eperen baterako erreferentziako tasa ezartzerik

ez badago, planeatutako jaulkipenetik gertuen dagoen epea aplikatuko da.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, etekin aldakorra edo flotatzailea duten finantza aktiboen jaulkipenei dagokienez, eragiketaren interes efektiboa haren barne etekinaren tasa izanen da, etekin esplizituak bakarrik kontuan hartuta, eta tasa, kasua bada, kalkulatzeko erreferentzia gisa hartuz sortutako etekinen behin betiko zenbatekoa aldizka finkatzeko erabiltzen den parametroaren hasierako balorazioa.

Nolanahi ere, etekin mistoa duen zor publikoa baldin bada, zeinaren kupoiak eta amortizazio zenbatekoak prezio indize baten arabera kalkulatzeko baitira, lehen paragrafoko portzentajea ehuneko 40 izanen da.

4. Etekin inplizitua duten tituluen edo aktiboen itzulketa, baita eskualdaketan, amortizazioan edo itzulketan atxikipena jasan behar duten etekin esplizituko finantza aktiboena ere, besterendu edo haien dirua lortzeko, ezinbestekoa izanen da frogatzea, batetik, horiek aldeztatik eskuratu izana aurreko atalean aipatu diren fede-emaileek edo atxikipena egin behar duten finantza-erakundeek esku hartuz, eta, bestetik, eragiketaren prezioa.

Igorpen tresna bat finantza aktibo bihurtzen denean zirkulazioan jarri ondoren, lehen endosatzea edo lagapena fede-emaile publiko edo finantza erakunde baten bitartez egin beharko da, salbu eta endosatzailea edo eskuratzailea bera finantza erakunde bat denean. Fede-emaileak edo finantza erakundeak agirian jasoko du finantza aktiboaren izaera, eta lehenbiziko eskuratzailea edo edukitzailea identifikatuko du.

5. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, pertsona edo entitate jaulkitzaileak, haren kontura jarduten duen finantza erakundeak, eta, eskuratzaillearen edo gordailugilearen kontura, kasuan kasukoa, jarduten edo esku hartzen duen fede-emaile publikoak edo finantza erakundeak gai hauek frogatzeko ziurtagiria eman beharko dute:

a) Eragiketaren data eta aktiboaren identifikazioa.

b) Eskuratzaillearen izena.

c) Eskuratzaillearen edo gordailugilearen identifikazio fiskaleko zenbakia.

d) Eskurapen prezioa.

Ziurtagiri horren hiru ale emanen dira; haietako bi eskuratzaileri emanen zaizkio, eta hirugarrena ziurtagiria egin duen pertsonak edo entitateak gordeko du.

6. Finantza erakundeek edo fede-emaile publikoek ez dute bitartekari lanik eginen edo esku hartuko aktibo horien eskualdaketan eskualdatzaileak ez badu eskuratu izana frogatzen artikulu honetan xedatutakoarekin bat.

7. 4. apartatuan aipatzen diren finantza aktiboen pertsona edo entitate jaulkitzaileek ezin izanen dute horien dirua itzuli edukitzaileak ez badu frogatzen, 5. apartatuan adierazitakoarekin bat datorren kasuko ziurtagiriaren bidez, aldez aurretik eskuratu izana.

Eragiketaz arduratzen diren jaulkitzaileak edo finantza erakundeak ez badiote, aurreko paragrafoaren arabera, itzulketarik egin behar titulu edo aktiboaren edukitzaileari, kopuru horren adinako gordailua eratu beharko dute eta agintari judizialen esku utzi.

Aldez aurretik berrerosi, erreskatatu, deuseztatu edo amortizatzeko, finantza erakunde batek edo fede-emaile batek esku hartu edo bitartekari lanak egin beharko ditu, eta aktiboa jalki duen entitatea edo pertsona eskuratzailerik hutsa bihurtuko da titulua zirkulazioan jartzen badu berriz.

8. Tituluaren edukitzaileak, eskurapena frogatzen duen ziurtagiria galduz gero, ziurtagiria eman zuen pertsona edo entitateak kopia emateko eskatzen ahalko du.

Pertsona edo entitate horrek agiria kopia dela jaso beharko du, bai eta agiria eman zen data ere.

9. Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, kostu gabeko eskualdaketan kasuan, eskuratzailerik eskualdatzailearen eskurapen balioan subrogatzen dela ulertuko da, kostu horren behar adinako justifikazioa baldin badago.

45. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharraren kalkulurako oinarria

1. Oro har, egin beharreko atxikipenaren kalkulurako oinarria eskatu beharreko edo ordaindutako kontraprestazioaren zenbateko osoa izanen da. Kontraprestazio osoa frogatzerik ez dagoenean, Zerga Administrazioak egiaz jasotakoa emanen duen zenbateko bat hartuko du halakotzat, behin bidezkoa den atxikipena kendu ondoren.

2. Finantza aktiboen amortizazioaren, itzulketaren edo eskualdaketaren kasuan, egin beharreko atxikipenaren kalkulurako oinarria izanen da amortizazio, itzulketa edo eskualdaketa balioaren eta aktibo horien eskurapena edo harpidetza balioaren arteko kendura positiboa. Eskurapen balioa eskurapena frogatzen duen egiaztagirian jasotakoa

izanen da. Ondorio horietarako, eragiketaren gastu gehigarriak ez dira gutxituko.

Eskualdatzaileari dagokion atxikipena galarazi gabe, entitate jaulkitzaileak berak jaulkitako finantza aktibo bat eskuratzen badu, atxikipena eta sarrera eginen da tituluaren geroagoko edozein eskualdaketa motatan lortzen duen etekinaren gainean, amortizazioa kenduta.

3. Atxikipena egiteko betebeharraren jatorria 41.1.b) artikuluan aurreikusitakoan dagoenean, haren kalkulurako oinarria sariaren zenbatekoa izanen da.

Loteria eta apustuen sarien kasuan, haien zenbatekoagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen den zenbait loteria eta apusturen gaineko karga bereziaren menpekoak eta salbuetsi gabeak direnean, atxikipena kargaren menpeko sari salbuetsi gabearen gainean eginen da, xedapen horrekin bat.

4. Atxikipena egiteko betebeharraren jatorria 41.1.f) artikuluan aurreikusitakoan dagoenean, atxikipenaren oinarria akzioen edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketa balioaren eta eskurapen balioaren arteko kendura izanen da. Ondorio horietarako, zergadunak eskualdatu edo itzulitako baloreak eskuratu zituen lehenak direla ulertuko da.

35/2003 Legearen bidez araututako inbertsio funtsetako partaidetzen itzulketa denean -lege horren 40.3 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta, partaidetza horietarako partaideen erregistro bat baino gehiago baldin badago-, edo helbidea atzerrian duten inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketa, Espainiako lurraldean merkaturatzen, jartzen edo

banatzen direnena, aurreko paragrafoan aipatzen den antzintasun araua itzulketa edo eskualdaketa zer entitate kudeatzaile edo merkaturatzaileekin egin, hark aplikatuko beharko du, bere partaide edo akziodunen erregistroan ageri diren baloreei dagokienez.

5. Konturako sarrera egiteko betebeharraren jatorria 41.3 artikuluan aurreikusitakoan dagoenean, haren kalkulurako oinarria ondasunaren merkatuko balioa izanen da.

Ondorio horietarako, merkatuko balioa izanen da ordaintzailearentzat duen eskurapen edo kostu balioa 100eko 20 handitzearen emaitza.

6. Atxikipena egiteko betebeharraren jatorria 41.1.e) artikuluan aurreikusitakoan dagoenean, atxikipenaren oinarria errenta hartzaileari ordaintzen zaizkion kontzeptu guztien zenbatekoa izanen da, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta.

7. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 29.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko doikuntza sekundarioak atxikipena edo konturako sarrera egiteko beharra sortzen duenean, atxikipenaren oinarria hitzartutako balioaren eta merkatuko balioaren arteko kendura izanen da.

8. Erregelamendu honen 41.1.g) artikuluan aipatzen diren errenten kasuan, atxikipenaren oinarria zergari buruzko foru legearen 25.7 artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulaturako zerga oinarrian sartu beharreko zenbatekoa izanen da.

46. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharraren sorrera

1. Oro har, atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko betebeharrak atxikipenaren edo konturako sarreraren menpe dauden errentak, diruzkoak nahiz gauzazkoak, eskatu behar diren unean sortuko dira, edo haiek ordaindu edo entregatzen direnean, lehenago bada.

Bereziki ulertuko da interesak eskatu beharrekoak direla eskrituran edo kontratuan likidazio edo kobrantzarako aipatzen diren mugaegunetan, edo beste modu batean kontuan onartzen direnean, nahiz eta jasotzaileak kobrantza ez erreklamatu edo etekinak eragiketaren printzipalari gehitu, eta dibidenduak, berriz, banaketarako akordioan ezarritako datan edo akordioa hartu eta biharamunetik hasita, aipatutako data hori ageri ez bada.

2. Finantza aktiboen amortizazio, itzulketa edo eskualdaketatik datozen etekinen kasuan, atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra eragiketa formalizatzen den unean sortuko da.

3. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzeko duten akzioen edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketen ondorioz lortutako errenten kasuan, atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra eragiketa formalizatzen den unean sortuko da, edozein direla ere kobrantzarako adostutako baldintzak.

47. artikulua. Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa

Atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa ezartzeko, kalkulurako oinarriari portzentaje hauek aplikatuko zaizkio:

1. Oro har, 100eko 19.

2. Irudia ustiatzeko eskubidea lagatzetik edo haren

erabilera onartu edo baimentzetik sortutako errenten kasuan, atxikipenaren portzentajea 100eko 20 izanen da.

3. Loteria eta apustuen sarien kasuan, haien zenbatekoagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen den zenbait loteria eta apusturen gaineko karga bereziaren menpekoak eta salbuetsi gabeak direnean, 100eko 20.

48. artikulua. Atxikitzaiaren eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak

1. Edukitzaileak eta konturako sarrera egitera behartutakoak urteko hiruhileko natural bakoitzari dagozkion zenbateko atxikien eta konturako sarreraren gaineko aitorpena aurkeztu, eta dagokien zenbatekoaren sarrera Foru Komunitateko Diruzaintzan egin beharko dute.

Aitorpena eta diru-sarrera egiteko epea, hiruhileko natural bakoitza bukatu eta hurrengo hileko lehen hogei egun naturalekoa izanen da. Bigarren eta laugarren hiruhilekoei dagozkiena, berriz, abuztuaren 5ean eta urtarrilaren 31n bukatuko dira hurrenez hurren.

Halere, edukitzaileen eta konturako sarrera egitera behartutakoen likidazio aldia, balio erantsiaren gaineko zergarena, hilabete naturalarekin bat datorrenean, haien aitorpena eta sarrera hileko likidazio aldiaren hurrengo hilabeteko lehendabiziko hogeita hamar egun naturaletan egin beharko da, edo otsaileko azken egunera arte, urtarrileko aitorpen-likidazioaren kasuan. Nolanahi ere, ekaineko aitorpen-likidazioa abuztuaren 5a arte aurkezten ahalko da, uztailekoa irailaren 20a arte, eta abendukoa urtarrilaren 31 arte.

Atxikipenaren edo konturako sarreraren menpe dauden errentarik ordaindu ez bada ez da aitorpen negatiborik aurkeztu beharko.

2. Atxikitzaileak edo konturako sarrera egitera beharturik dagoenak hurrengo urteko urtarrilean aurkeztu beharko du aurreko urtean egindako atxikipen eta konturako sarreraren laburpena. Laburpen horretan, bere identifikazio datuez gain, hartzaileen izenen zerrenda ere jaso beharko da, datu hauekin:

a) Entitatearen izena.

b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Egindako atxikipena edo konturako sarrera, kasua bada, eta lortutako etekina, kontzeptuen identifikazioa, deskribapena eta izaera adieraziz, bai eta haien sortzapen urtea ere.

3. Atxikitzaileak edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak zergadunaren aldeko ziurtagiri bat eman beharko du, egindako atxikipenak edo konturako sarrerak frogatzen dituen, bai eta subjektu pasiboari buruzko gainerako datuak ere, aurreko apartatuan aipatzen den urteko laburpenean jaso beharrekoak.

Ziurtagiri hori zerga honen aitorpen epea hasi aurretik jarri beharko da zergadunaren eskura.

4. 2. eta 3. apartatuetan ezarritako betebeharrak izanen dituzte Espainian helbidea edo ordezkaritza duten entitateek edo bertako egoiliarrek, atxikipenaren menpe dauden errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo balore errenten gordailuzainak edo kobrantzaren kudeatzaileak badira.

5. Ordaintzaileek egindako atxikipenen edo konturako sarreraren berri eman beharko diete zergadunei errentak ordaintzean, aplikatutako portzentajea ere adieraziz.

6. Artikulu honetan aipatzen diren aitorpenak eta, kasua bada, dagokion sarrera ere zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrak errenta mota bakoitzerako ezartzen dituen ereduetan eta moduan eginen dira, eta atxikitzaileak edo konturako sarrera egitera behartuta dagoenak aitorpenetan dauden datu guztiak bete beharko ditu nahitaez.

II. kapitulua. Konturako ordainketen kenkaria

49. artikulua. Ekonomia-jardueren gaineko zergaren tributu kuotak

Zergari buruzko foru legearen 69.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, sozietateen gaineko zergaren konturako sarreratzat hartuko dira sozietateen gaineko zergaren zergadunek jarduera ekonomikoen gaineko zergan ordaindutako tributu kuotak, baldin eta zergaldian izandako negozio zifraren zenbateko garbia 1.000.000 eurotik beherakoa izan bada bere jarduera guztietarako.

Negozio zifraren zenbateko garbia zifra hori adinakoa edo handiagoa izan bada, ez da kenkaririk eginen jarduerak betetzean ordaindutako kuota bakar batean ere.

Zergadunak udal kuota batzuk ordaindu baditu, udalerrri desberdinetakoak edo bakar batekoak, kasu honetan jarduera bera lokal batzuetan edo jarduera batzuk lokal berean, ordaindutako kuota guztiei kenkaria aplikatzen ahalko die, zergari buruzko foru legearen 69.2 artikuluan aurreikusitako gehieneko kenkaria eginda kuota horietako bakoitzean.

Errentak eratzikitzeko araubidean dauden entitateek Jarduera Ekonomikoen gaineko zergan ordaindutako kuoten kenkaria sozietateen gaineko zergaren zergadun diren bazkideek, erkideek edo partaideek egingen dute, entitatearen errentaren eratzekipenaren proportzioan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 49.2 artikuluan xedatutakori jarraikiz. Kenkari hori errentak eratzikitzeko araubidean dagoen entitateak zergaldian izandako negozio zifra garbia 1.000.000 euro baino gutxiagokoa izan denean soilik aplikatzen ahalko da.

Kenkari hori egiteko, ordaindutako kuotak eta kasu bakoitzean udalak ezarritako gutxieneko kuota agiri bidez modu egokian justifikatu beharko dira.

IV. TITULUA. ARAUBIDE BEREZIAK

I. kapitulua. Interes ekonomikoko taldeak, Espainiakoak eta Europakoak, eta aldi baterako enpresa-elkarteak

50. artikulua. Espainiako eta Europako interes ekonomikoko taldeen eta aldi baterako enpresa-elkarteen betebeharrak

1. Zergari buruzko foru legearen VIII. tituluko III. kapituluan aurreikusitako araubide berezia aplikatzekoa zaien Espainiako eta Europako interes ekonomikoko taldeek, zerga horren aitorpenarekin batera, beren bazkideen zerrenda aurkeztu beharko dute, edo bazkide izaerari datxezkion eskubide ekonomikoak dituzten pertsona edo entitateena, zergaldiko azken egunean, bertan datu hauek jasota:

a) Bazkideen edo bazkide izaerari datxezkion eskubide ekonomikoen jabe diren pertsonen edo entitateen

identifikazioa, helbide fiskala eta partaidetzaren portzentajea.

b) Espainiako lurraldeko egoiliarrak diren edo, egoiliarrak izan gabe, bertan establezimendu iraunkorra duten bazkideei edo bazkide izaerari datxezkion eskubide ekonomikoen jabe diren pertsona edo entitateei egotzi beharreko kopuruek, kontzeptu hauei dagozkienek, guztira egiten duten zenbatekoa:

Lehena. Kontabilitate-emaiza.

Bigarrena. Finantza-gastu garbiak, entitateak kenkarian sartu gabekoak.

Hirugarrena. Zerga-oinarria eta likidazio-oinarria

Laugarrena. Nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko kenkarien oinarria eta, kasua bada, errentaren jatorriko entitatean duen partaidetzaren portzentajea.

Bosgarrena. Hobarien oinarria.

Seigarrena. Pizgarrien ondoriozko kenkarien oinarriak

Zazpigarrena. Interes ekonomikoko elkarteari dagozkion atxikipenak eta konturako sarrerak.

c) Dibidenduak eta erreserben kargura banatutako mozkinetako partaidetzak, sozietateari araubide berezia aplikatzekoa izan ez zaion ekitaldiei dagozkienak bereiziz.

2. Interes ekonomikoko taldeek, horretarako emandako ziurtagiri bidez, aurreko apartatuko b) letran aurreikusitako kontzeptuengatik egotzi beharreko kopuru osoak eta banakako egozpena jakinarazi beharko dizkiete beren bazkideei edo bazkide izaerari datxezkion eskubide ekonomikoak dituzten pertsona edo entitateei.

3. Zergari buruzko foru legearen 87.3 artikuluko lehen paragrafoan dibidendu eta mozkinetako partaidetzetarako ezarritako tributazio ezaren ondorioetarako, taldeek urteko kontuen memorian jaso beharko dute informazio hau:

a) Erreserbei aplikatutako irabaziak, zergak araubide orokorrean ordaindu zireneko zergaldiei dagozkienak.

b) Araubide berezian tributatu zuten zergaldiei dagozkien erreserbei aplikatutako mozkinak, Espainiako lurraldeko egoiliar ziren bazkideei zegozkienak eta egoiliar ez ziren bazkideei zegozkienak bereizita.

c) Erreserben kargurako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak banatuz gero, aurreko a) eta b) letretan aipatutako hiruretatik zein erreserba aplikatu den adierazi behar da, mozkin motaren arabera.

4. Urteko memorian jaso beharreko aipamenak, 3. apartatuan ezarritakoak, 3.b) apartatuan aipatzen diren erreserbak dauden bitartean egin beharko dira, entitateak araubide berezian tributatzen ez badu ere.

5. 3. eta 4. apartatueta ezarritako informazio betebeharrak eskatu beharrekoak izanen dira 3.b) apartatuan aipatutako erreserben titularitatea duten hurrengo entitateei dagokienez ere.

6. Artikulu honetan xedatutakoa, aplikatu beharrekoa den neurrian, zergari buruzko foru legearen VIII. tituluko III. kapituluan aurreikusitako araubide bereziaren menpeko enpresen aldi baterako batasunak ere lotuko ditu, zergaldiko azken egunean Espainiako lurraldeko egoiliar diren enpresa kideei dagokienez.

II. kapitulua. Zerga kontsolidaziorako araubidea

51. artikulua. Zerga kontsolidaziorako araubideari atxikitako entitateak: aplikazioa eta informazio betebeharrak

Zerga kontsolidaziorako araubidea aukeratu dela jakinarazi egin beharko zaio Nafarroako Zerga Ogasunari.

Datu hauek izan behar ditu jakinarazpenak:

a) Talde fiskala osatzen duten sozietateen identifikazioa.

Entitate nagusia Espainiako lurraldeko egoiliarra ez bada, edo bertako egoiliarra izanda ere zerga honetan banakako tributazioaren araubideari buruzko araudi erkidearen menpe badago, horren identifikazioa ere eskatuko da.

Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitatearen establezimendu iraunkorren kasuan, gehigarri gisa eskatuko da entitate hori, Espainiako lurraldeko egoiliarra ez dena, identifikatzeko.

b) Talde fiskaleko sozietateek kontsolidazio fiskaleko araubidea hautatzeko hartutako erabakien kopia, eta, entitate nagusia ez bada Espainiako lurraldeko egoiliarra, edo bertako egoiliarra izanda ere zerga honetan banakako tributazioaren araubideko araudi erkidearen menpe badago, agiri bat, entitate ordezkaria izendatzen duena.

c) Sozietate nagusiak talde fiskala osatzen duten sozietate guztietan duen zuzeneko nahiz zeharkako partaidetzaren portzentajeen zerrenda, horietan duen boto eskubiderako portzentajea eta partaidetzen eskurapen data.

Entitate ordezkariak adieraziko du zergari buruzko foru legearen 100. artikuluan ezarritako baldintza guztiak betetzen direla

III. kapitulua. Honako hauen araubide berezia: bat-egiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak eta baloreen trukaketak eta europar sozietate batek edo europar sozietate kooperatibo batek egoitza soziala Europar Batasuneko kide den estatu batetik beste batera aldatzea

52. artikulua. Araubide bereziaren jakinarazpena

1. Zergari buruzko foru legearen VIII. tituluko VIII. kapituluan araututako eragiketak Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaizkio.

Jakinarazpena eragiketen entitate eskuratzailerak egingen du, salbu eta Espainiako lurraldeko egoiliarra ez bada, kasu horretan jakinarazpena entitate eskualdatzailerak egingen baitu.

Halere, eragiketan entitate eskuratzailerak eta entitate eskualdatzailerak Espainiako lurraldeko egoiliarrak ez badira, jakinarazpena entitate eskualdatzailerako bazkideek egin beharko dute, betiere Espainiako lurraldeko egoiliarrak badira. Hala ez bada, entitate eskualdatzailerak egingen du jakinarazpena.

2. Jakinarazpena eragiketa jasotzen duen eskritura publikoaren inskripzioa egin eta hiru hilabeteko epean egin beharko da. Inskripzioa beharrezkoa ez bada, eragiketari dagokion eskritura publikoa edo agiri baliokidea eman zen egunetik aurrera kontatuko da epea.

Egoitza soziala aldatzeko eragiketetan, jakinarazpena hiru hilabeteko epean egin beharko da, sozietatearen egoitza sozial berria zer estatu kidetan dagoen, eskritura

publikoa edo agiri baliokidea estatu horretako erregistroan inskribatzen denetik.

53. artikulua. Jakinarazpenaren edukia

Jakinarazpenak informazio hau izan beharko du:

a) Eragiketari parte hartzen duten entitateen identifikazioa eta eragiketaren deskribapena.

b) Eragiketari dagokion eskritura publikoaren edo agiri baliokidearen kopia.

c) Eragiketari akzioak eskuratzeko eskaintza publiko baten bidez eginak direnean, esku-orri informatiboaren kopia ere aurkeztu beharko da.

d) Zergari buruzko Foru Legearen VIII. tituluko VIII. kapituluan araututako zerga araubide berezia ez dela aplikatzen adieraztea.

IV. kapitulua. Alderdi politikoak

54. artikulua. Alderdi politikoaren ustiapen ekonomikoak, sozietateen gaineko zergatik salbuetsitakoak

1. Zergari buruzko foru legearen 133.d) artikuluan aurreikusitako salbuespenaz baliatzeko, alderdi politikoek eskaera aurkeztu beharko dute, zergaren kudeaketarako eskumena duen zerbitzuari zuzendua, ondorioak izan behar dituen zergaldia amaitu aurretik.

Alderdi politiko eskatzaileak, eskabidearekin batera, honakoak aurkeztu beharko ditu: eraketa eskrituraren eta estatutuen kopia arrunta, Barne Ministerioko Alderdi Politikoaren Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria, eta memoria bat, azaldu eta justifikatzen duena bere

jarduerarekin bat egiten duten ustiapen ekonomikoetarako eskatzen dela salbuespena.

Ondorio horietarako, ulertuko da ustiapen ekonomikoak eta alderdi politikoari dagokion jarduera bat datozela baldintza hauek betetzen direnean:

a) Haren helburuak betetzen zuzenean nahiz zeharka laguntzen dutenean.

b) Salbuespena izateak lehian gorabeherarik sortzen ez duenean jarduera berean aritzen diren enpresei dagokienez.

c) Berdintasun baldintzetan ematen zaienean pertsona talde generikoei. Baldintza hori ez dela betetzen ulertuko da jardueraren hartzaile nagusiak sustatzaileak, afiliatuak, konpromisarioak eta zuzendaritza eta administrazio organoetako kideak direnean, bai eta ezkontideak eta laugarren gradurainoko ahaideak ere, hori barne, haietako edozeinenak direla ere, edo zerbitzuak erabiltzeko baldintza bereziak dituztenean.

2. Zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzuak ebazpen arrazoitua emanen du eskatutako salbuespenaz. Salbuespen horretarako baldintza izanen da uneoro betetzea Alderdi Politikoaren Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan eta artikulua honetan aurreikusitako baldintzak eta betebeharrak.

Organo horrek ebazpena sei hileko epean jakinarazten ez badu, salbuespena eman dela ulertuko da.

3. Aurreko apartatuetan aipatzen den salbuespena behin onartuta, ez da beharrezkoa izanen eskaera errepikatzea hurrengo zergaldietan aplikatzeko, salbu eta aldatzen badira salbuespena ematea justifikatu zuten inguruabarrak edo aplikatu beharreko araudia.

Alderdi politikoak zergaren kudeaketarako eskumena duen zerbitzuari jakinarazi beharko dio salbuespena aplikatzeko eskatu beharreko baldintza edo betebeharretan izandako funtsezko aldaketa oro. Zerbitzu horrek salbuespena aplikatzen jarraitzea bidezkoa den edo ez deklaratzeko ahalko du, alderdi politikoari entzutea eman ondoren hamar egunez. Halaxe egingen da tributu administrazioak salbuespenaren aplikaziorako baldintzak edo betebeharrak aldatu direla edozein bidetatik jakiten duenean ere.

4. Salbuespen hau aplikatzeko eskatzen diren baldintzak ez betetzeak aplikatzeko eskubidea galtzea ekarriko du, ez-betetzea gertatzen den zergalditik aurrera.

5. Alderdi politikoek jarduera ekonomikoa eta finantzarioa behar bezala kontrolatzen laguntzeko, Nafarroako Zerga Ogasunak Kontuen Auzitegiari emanen dio aurkeztutako salbuespen eskaeren eta horien emaitzen berri.

55. artikulua. Frogatzea, atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharretik salbuestearen ondorioetarako, alderdi politikoek jasotzen dituzten errenta salbuetsiei dagokienez

Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharretik salbuestearen ondorioetarako, frogatzea tributu arloan eskumena duen departamentuak emandako egiaztagiriaren bidez egingen da, eskaera egin ondoren; horrekin batera, Barne Ministerioaren Alderdi Politikoaren Erregistroan inskripzioa egin izanaren ziurtagiriaren kopia ere aurkeztuko da.

Ziurtagiri horretan indarraldia ere jasoko da, eman zen egunetik eskatzailearen zergaldia amaitu artekoa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Xedapen gehigarri bakarra. Kanpoko lankidetzak aitorpenak aurkezteko eta kudeatzeko

1. Zerga arloko eskumena duen departamentuak hitzarmenak sinatu ahalko ditu beste administrazio publiko batzuekin, entitateekin eta sektore edo interes sozialak, laboralak, enpresakoak edo profesionalak ordezkatzeko dituzten erakundeekin, zerga honen aitorpenak aurkezteko gizaratearen lankidetzak gauzatzeko.

2. 1. apartatuan aipatutako hitzarmenak, besteak beste, ondoko alderdiei buruzkoak izanen dira:

- a) Informazio eta zabalkunde kanpainak.
- b) Aitorpenak egiteko eta modu egokian eta egiazkoan betetzeko laguntza.
- c) Aitorpenak bidaltzea Zerga Administrazioari.
- d) Akatsak zuzentzea, zergadunek baimena eman ondoren.
- e) Ofiziozko itzulketen tramitazioa nola dagoen jakinaraztea, zergadunek baimena eman ondoren.

3. Zerga arloko eskumena duen departamentuak jarduera horiek burutzeko behar den laguntza teknikoa emanen du, baina horrek ez du kenduko zerbitzu horiek zergadun guztiei emateko ahalbidea.

4. Zerga arloko eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez ezarriko dira teknika eta baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen bidez gizarte elkarlana gauzatzeko beharkizunak eta baldintzak. Halaber, gizarte elkarlanerako akordioaren esparruan, zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrak ezarriko du Administrazioarekin akordioak dituzten entitateek zein beharkizun eta baldintza beteta aurkeztuko dituzten bide

telematikoz aitorpenak, komunikazioak, aitorpen-likidazioak edo tributu araudiek ezarritako bestelako dokumentuak, hirugarrenen ordezkari gisa.

Halaber, Zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrak zilegi du aurreikustea bestelako pertsona edo entitate batzuek sarbidea izatea ordezkapen sistema horretara baliabide telematikoz hirugarrenen ordezkari gisa.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen xedapen iragankorra. Finantza eragiketa batzuen gaineko zerga-onuren araubide iragankorra

1. Eskuratutako eskubideak, eman ziren bezala, mantenduko dituzte autobideen sozietate emakidahartzaileek, baldin eta, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legeak indarra hartu zuenean, foru lege horren hogeita laugarren xedapen iragankorrean aipatzen diren tributu onuretako bat badute.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, kapital errenten gaineko zergatik datozen irabazien aplikazioan arau hauek bete beharko dira:

a) Autopisten emakida hartzaile diren sozietateei onartutako etekinak aurrerantzean ere aplikatuko dira, kapital errenten gaineko zergaren arauekin bat eta zerga horren arabera aplikatzekoa den tasarekin.

b) Etekinen jasotzailea, betebeharraren menpe dagoela ageri denean, bere kuotan egiten ahalko du kapital errenten gaineko zerga, mozkinik izan ez balitz aplikatuko zatekeena.

c) Aurreko letran xedatutakoa gorabehera, aseguru, aurrezki entitateek eta mota guztietako kreditu entitateek

atxikipenaren egiazko kopuruaren adinako kenkaria baizik ez dute eginen beren kuotan.

Bigarren xedapen iragankorra. Kapital higigarriaren etekinen eta ondare irabazien gaineko atxikipenen arloan egindako aldaketen araubide iragankorra.

1. Etekin esplizitua duten finantza aktiboen eskualdaketa, amortizazio edo itzulketetan, atxikipena egiteko betebeharra 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatutako eragiketei aplikatuko zaie.

1999ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako finantza aktiboak, etekin esplizitua dutenak, eskualdatzean, eskurapen prezioa ez bada frogatzen, atxikipena aktiboaren jaulkiper balioaren eta eskualdaketaaren prezioaren arteko kenduraren gainean eginen da.

Ez da atxikipena egin beharko 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako zor publikoko baloreen eskualdaketa, truke edo amortizaziotik sortutako etekinen kasuan, data hori baino lehenago horiengatik atxikipena egin beharrik ez bazegoen.

2. 1999tik aurrera etekin esplizituak jasotzen badira, horiengatik konturako sarrerak egin badira likidazioen maiztasuna hamabi hilabetetik gorakoa izateagatik, eskatu beharreko unean indarra zuen tasarekin eginen da behin betiko atxikipena, eta konturako egindako sarrerei begiratuta erregularizatuko da.

Hirugarren xedapen iragankorra. Garraio elementuen erabilerak eragindako gastuak 2017ko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldietan

13. artikuluan aipatzen den muga zehazteko, kontuan hartuko dira garraio elementuen amortizazio, errentamendu

edo lagapen gastuak, horien kenkaria 2017ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako zergaldietan egin bada.

2017ko urtarrilaren lehen muga horretara iritsi edo hura gainditu baldin bada, egun horretatik aurrera hasitako zergaldietan sortutako gastuengatik ezin izanen da kenkarik egin.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu honek indarra hartzen duenean, indarririk gabe geldituko dira haren edukiaren kontra dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Bereziki, hauek:

a) Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duen urriaren 13ko 282/1997 Foru Dekretua.

b) Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketak arautzen dituen eta sozietateen gaineko zergaren erregelamendua atxikipenen eta konturako sarreraren arloan aldatzen duen abenduaren 30eko 371/1998 Foru Dekretuaren xedapen gehigarri bakarra eta xedapen iragankor bakarra.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.